




Rafael Alegria

**Honduraseko
erresistentziako
liderra**

«Gure aitak
bizilekuz aldatu
behar izan zuen
lur bila. Nik
sistema aldatu
nahi dut»



- **Hiperaktibitatea** Sindromea ez duen milaka haur ari da botikak hartzen
- **Niko Moreno, Ezker Abertzalea:** «Konfiantza osoa dugu ETak Bruselako adierazpenari erantzungo diola; ez dakigu noiz»
- **Mikel Laboa:** Musikari berriek berpiztu dute inoiz hil ez zena
- **Miren Intxausti, Seaskako irakasle ohia:** «Euskara ez da inportantea. Ez duguna baloratuz bizi gara euskaldunok»



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure!
artean!
euskaraz



BIZKAIA
BIZIA



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2010eko abenduaren 5a, 2.255. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Jon Irazabal:** «Egin zen euskarazko liburu eta disko azoka, baina bakarrik geratu ginen». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Hiperaktibitatea.** Diagnostiko okerrean ondorio kaltegarriak. MIKEL GARCIA / 5

Pertsonaia

- **Rafael Alegria:** «Elikagaien subiranotasunik gabe ez dago subiranotasun politikorik». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Nevadako azken euskal artzainak.** MIKEL GARCIA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 18
- **Ttakun (h)errenka** Poeta banandu-berri baten egunkaria. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Jauzi digitala.** EDORTA ARANA / 21
- **Hiruko txikian** Bezeria gatibua. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Abizenez Alkorta.** EIDER ALKORTA / 22
- **Txandan** ETB, 23:30. AMATIÑO / 22
- **Zirtak** Eratzun beltza. PATXI ZUBIZARRETA / 23

Erdiko kaiera

- **Orain bai, liburu digitalak eztanda egingo du.** GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Kantuz hartuko haugu, hitaz oroitzean.** LANDER MUÑAGORRI / 28
- **lhesi Barkoxe (Zuberoa).** Laborari-poeten lurretan. ALLANDE SOKARROS / 32 • **Liburuak** ARITZ GALARRAGA / 36
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 37 • **Ezpalak** JON TORNER / 38
- **Abarrak** UNAI BREA / 39 • **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO / 40
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 42
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 43
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 44

Termometroa

- **Niko Moreno, Ezker Abertzalea:** «Ildo estrategikoarekiko atxikimendua erabatekoa da». MIKEL ASURMENDI / 45
- **Historialarien Galeusca.** Madrilgo Historia kanonari erantzuteko jardunaldiak. URKO APAOLAZA / 48
- **Miren Intxausti, Seaskako irakasle beterranoa:** «Hizkuntzarekin gozatzea ahanzi zaigu bidean». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 50
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 54
- **Net Hurbil** Irlanda zaharra euroaren kolonia bihurtu zenekoa. PELLO ZUBIRIA / 56

Azkena

- **Silvio Berlusconi.** GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 58



“Egin zen euskarazko liburu eta disko azoka, baina bakarrik geratu ginen”

Jon Irazabal | Durangoko Mahoma

Musulmanak Mekara nola,
konplitzen dugu Azokarekin.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Munduaren erdigune berriz Durango...

Mundua biribila izanik edozein toki da erdigunea. Euskaldunok Durango bihurtzen dugu egun batzuetarako lurraren zilborra.

Euskal kulturaren gertakari zentrala zarete, prefosta.

Mila esker, baina... meritua Durango urtean bost egunez betetzea, diozu? Futbol zelaiaik bai, igandero gainezka izaten dira eta gainera sarrera ordainduta

Azokari esker bizi da-eta euskal disko-liburugintza!

Ongi etorriak dira aparteko soldatak, baina Durangorekin bakarrik inork ezin du bizi.

Galdetu argitaratzaileei, zeinen pozik dauden bitartekorik gabe.

Eta baserritarrak Gernikako urriko azken astelehenean, baina haiei inork ez die judu deitzen.

Erosleak beharrezko dira. Baina Azokak ez al luke gehiago izan behar?

Eta bada, begiratu baino ez duzu egin behar aurtengo egitaraua. Erronka ekonomia eta kultura uztartzea da. Sortzaileak saltzen ez badu, ez du hurrengo sormenik kaleratuko.

Egia, arazoa ez da Durango, beste guztia baizik.

Durangoko ispiluak ez du balio egunerokorako, herri bateko jaiak ere herri horretako egunerokoaren isla ez diren bezala.

Autoreak kexu agertu izan dira, ahotsik ez dutela, edo mediatizatua.

Ahotsa izan nahi dute ala Azokaren norabidean eragin? Kontatu izan digute, Azokaren zurrunbiloak itota, etorri barik “oporrak” hartu izan dituztela autore batzuek.

Argi dago eztabaidarako ere gertakari bikain askoa dela Azoka. Eta eztabaida ez da berez txarra.

Iritziak entzutea ondo dago, baina askotan iritzia nola eman, hor huts egiten dugu. Eta azkenean baten batek hartu behar du erabakia. Kasu honetan guri dagokigu.

Hemen bat: Euskal Liburu eta Disko Azoka, ezen ez euskarazkoa.

Euskarazkoa 1986tik 1988ra arteko udaberrietan egin zen, baina bakarrik geratu ginen. Herri honetan landare hura ez zen loratu.

Arazoa, akaso, “euskal gai” zer den zehaztea da.

Ez da erraza izaten. Hemen eskatzen dabilta Euskal Herrian argitaratzen den edozein liburuk lekua izatea. Guk “euskal” izaera nabarmendu nahi dugu. Arazoa da ikuspegi diferenteak daudela.

Zer litzateke Durangoko Azoka gaztelaniazko libururik gabe?

Harrituko ginateke benetako ordua heltzean, euskal guru askoren erantzunekin. 1986ko euskarazko azoka datorkit gogora. ■

Hiperaktibitatea

Diagnostiko okerren ondorio kaltegarriak



DANI BLANCO

Aise erabiltzen dugu hitza: “Ume hau hiperaktiboa da”. Eta aise sinesten dugu hala dela: diagnostiko okerrak egiten dira maiz, eta haur asko dago medikatuta, beharrik gabe. Zer da eta zer ez da hiperaktibitatea? Zein ondorio dauzka?

Testua eta argazkiak:

MIKEL GARCIA

HASIERATIK ARGI UTZI DEZAGUN pertsona batzuen ezaugarria dela hiperaktibitatea, ez gaixotasuna. Baina ohikoa da ingurura egokitzeke arazoak sortzea hiperaktibitateak, eta horrek ekarri ohi du Arreta Gabeziaren Hiperaktibitate Nahasmendua delakoa (AGHN).

Hiperaktibitatearen jatorria burmuinean kokatu behar dela argitu digu Maria López neurobiologoak, zehazki lobulu frontalean. Kopeta atzean dago lobulu frontala, burmui-

nean garatzen den azken zatia da eta funtzio betearazlea dauka: planifikatzeaz arduratzen da, antolatzeaz, memoria edo lan baliabideak emateaz, pentsamendua eta emozioa integratzeaz... Iristen zaion informazioarekin zer egin erabakitzen du, zein jarrera hartu. Baina AGHN-aren atzean bi arazo egon daitezke: edo berezko arazoa du lobuluak eta neurotransmisoreek ez dute bere lana ondo egiten, edo problema ez dago lobuluan, informazioa helarazten dioten burmuineko beste zatiren

● Hiperaktibitatea

batean baizik (mugimenduaz arduratzen dena, arlo sentsoriala kontrolatzen duena, burmuin emozionala...) eta hortaz lobuluak erabaki okerrak hartzen ditu, informazio okerra iristen baitzaio.

Ordea, gaur egun zaku berean sartzen dituzte ume denak, eta medikazio bera ematen zaie. Akats handia dela dio Lópezek, jatorria lobulu frontalean ez dagoenean, burmuineko beste zatiren batean baizik, garapen arazo bat baino ez delako, eta ez du inongo zentzurik pilulara jotzeak. Arazo neurobiologikoa herritarren %2-3ak du (mutilen %5ak eta nesken %1ak), baina askoz ume gehiago dago hiperaktibitateagatik medikatuta: Hego Euskal Herrian, %10-15 artean, eta AEBetan esaterako, haurren %25a, hainbat daturen arabera.

Hiru multzo handi bereiz ditzakegu AGHN-an: arreta gabezia dutenak (arreta aldaketa handiak dituztenak edo segituan deskonektatzen duten umeak), hiperaktiboak (geldi egoten ez direnak, mugimenduak antolatzeke arazo larriak dituztenak) eta inpulsiboak (pentsatu aurretik jokatzeko dutenak). Haur asko, dena den, hiruen nahasketa dira. Bada esaten duenik nahasmendua ez dela existitzen eta psikiatren asmakizuna dela, ume zailak etiketatzeko, egungo gizarteak normaltzat eta anormaltzat jotzen duenaren arabera asmatutako gaitza dela. Profesional gehienek iritziz, hala ere, ezin da ukatu badagoela errepikatzen den sintoma multzoa (George Still pediatria ingelesak 1902an lehenengoz deskribatua), genetikoki transmititzen dena. Kontua da, jokabidearen nahasmendua dela hiperaktibi-

tatearena, umearen jokabide-pautak aztertuz antzeman beharrekoa, eta gaizki ebaluatutako eta gaindiagnostikatutako kasu asko dago. Zer da “arrunta” eta zer ez? Non dago muga?

Zer EZ da hiperaktibitatea

Psikiatrarengana doazen haur eta gazteen kontsulten %20 eta 40 artean hiperaktibitatea arrazoitzen dute. ALBOR-COHS zentroko zuzendari Angela Magazen hitzetan, irakasle eta medikuen gomendioz zentrori hurbiltzen zaizkien guraso gehienak erratuta daude: gehiago dira gaizki diagnostikatuta iristen diren haurrak, benetan hiperaktiboak direnak baino. Bilbon eta Barakaldon du egoitza ALBOR-COHS zentroak, psikologoek eta pedagogoez osaturiko taldea da eta hezkuntza arloko aferak dituzte lan ildo: ikasketa arazoak dituzten gazteak laguntzea, familiak aholkatzea, irakasleak prestatzea eta ikerketak garatzea. Magazek dioskunez, konplexua da hiperaktiboa “dena” eta hiperaktibo “dagoena” bereiztea, baina funtsezko desberdintasuna dago atzean; bere organismoak behar duen lako egiten du lehenengoak, beste arrazoiaren batengatik bigarrenak: adibidez, gehiegizko estres edo antsietateagatik —denak mugitzen gara urduri gaudenean—; ohituragatik —nahi duena egitera ohituta dago umea, ez diote mugarik jarri—; egunez ezaugarri hiperaktiboak ditu insomnia duelako —adibidez amigdala handiegiak dituelako eta gauez arnasa ondo hartu ezin duelako—; arrazonamendu edo adimen abildadeetan atzerapen pixka bat dauka eta ariketekin frustratzen denez, antsietatea sortzen zaio...

Ehiztari bikainak, nekazari kaskarrak

Informazioa prozesatzeko beste modu bat da hiperaktibitatea, egungo eredura egokitzen ez dena, baina beste garai batzuetan baliagarria. Ehiztariaren eta nekazariaren teoria ebolutiboaren arabera, duela milaka urte gizakia ehizetik bizi zenean jende baliotsua zen hiperaktiboa: energetikoa, fisikoki nekazezina, arreta aldetik inguru guztia ‘eskaneatzeko’ gai... Egungo gizarteak, ordea, gehiago erantzuten dio nekazariaren ereduari: eserita eta geldi egoteko pentsatua dagoen eskola, denbora luzez irakasleari entzunez. Maria López neurobiologoaren esanetan, munduarekin eta inguruarekin lotzeko bi modu desberdin dira, “baina fisikoki hain aktiboak diren eta hainbeste estimuluri erreparatzen dioten ume hauek ikasgela barruan kaiolan bezala daude. Horren aurrean, batzuek deskonektatu eta bere mundura egingo dute ihes, eta beste batzuk sistemaren, irakasleen eta gurasoen aurka borrokatuko dira, horrek dakartzan arazoekin”.



ZURIÑE INTXAUSTI



"Nahasmendua ez da diagnostikatu behar 6 urte bete aurretik, 3rekin ume guztiek dute gehiegizko mugimendua. Medikamentua lagungarri izan daiteke, baina inoiz ez 6 urte bete aurretik, inoiz ez 2-3 urtez baino gehiago"

MARIA LÓPEZ, NEUROBIOLOGOA

Ados dago Maria López: ikasketa, emozio eta jarrera arazo asko hartzen dira AGHN gisa. Neskato bat ikusi berri duela kontatu digu, ikasgelan lanik egiten ez duena. Arreta gabezia zuelakoan zeuden, baina ez da hala, autoritatearekin du arazoa eta irakasleari oldartzen ari zaio etengabe; gurasoek ez dizkiote mugak behar bezala jarri. Ume batzuek, bestalde, ez dituzte oraindik erreflexu primitiboak guztiz inhibititu –denborarekin desagertuz doaz, baina hondarrak gera daitezke batzuetan– eta hiperaktiboak direla eman



"Hiperaktibo 'egon' daiteke umea, hiperaktibo 'izan' gabe: adibidez, gehiegizko antsietateagatik mugitu daiteke, edo mugarik ez zaiolako jarri, agian gaueko insomnioaren ondorio da, edo ariketekin frustratzen da..."

ANGELA MAGAZ, PSIKOLOGOA

dezake. Entzumen filtroak garatuak ez izatea ere arreta gabeziatzat hartzen da maiz: haurrak ezin ditu inguruko hotsak baztertu eta ez du arreta irakaslearen ahotsean jartzen. Edota besterik gabe aspertu egiten da, edo ez dago motibatuta, edo inpultsuen kontrol emozionala ez dago ondo garatua, baina ez dira AGHN-aren sintomak.

Gaur egungo gizarte eredua ere ez da lagungarria, umea geldi eta lasai egon dadin. Gabriela Dueñas psikopedagogoak uste du estimuluz betetako, arrakasta errazera ohitu-

15. Euskal denda.

Euskal Herriko Artisaugintzaren Azoka
Feria du Secteur Artisanal Basque
Feria del Sector Artesanal Vasco



www.euskaldenda.info

Durangoko Azoka plazan Abendua 3-8

GURE ARTISAUTZA DUGUN ZITA.
-Erakusketak-

- .- Artisau sena - Patchwork
- .- Erakustaldiak. Umeentzako Tailerrak.
- .- Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
- .- Sorpresa asko izan ditzakezu.

Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30-21:00

Sarrera: 1,20



**EYSKAL
HERRIKO
ARTISAN
ELKARTEA**



**BFA
DFB**



**artisautza
bizkaia:::**
artesanía - crafts



DURANGO
Udala - Ayuntamiento

tako eta gurasoen antsietateaz kutsatutako haurrak sortu dituela egungo gizarteak. Lópezek gaineratu du auzoko ikastetxera ere autoan doazen umeak gero eskolan eserita eta geldi egotea nekeza dela. Eta hainbeste zarata dagoen gizartean, zaila dela entzuten jakitea, horretarako soinuaz gain isiltasuna ere behar delako: “Denek estresatuta bukatzen dugu azkenean, eta muturrera eramaten dutenei diagnostikatzen zaie AGHN, inguruak ez duelako lasaitasuna bultzatzen. Hamabi orduko jardunaldiak dituzten seme-alabak ditugu, goizean ikastolara bidali eta gaueko bederatziak arte etxera itzultzen ez direnak!”. Eta hori hiperaktibitatearekin nahastea, hutsegitea da.

Ebaluazio makalak, diagnostiko desegokiak

DS4 izeneko da AGHN antzemateko diagnostiko estatubatuarra, gainontzeko lekutara zabaldu dena: gurasoek eta irakasleek bete beharreko inkesta batzuk dira, haurren arreta, hiperaktibitatea eta inpuitsibitatea neurtzeko. Pautak edozein lekutan eta sei hilabete baino gehiagotan errepikatzen direnean, nahasmendua duela diagnostikatzen zaio. Galdetegia, baina, ez da nahikoa inondik inora, Lópezen aburuz. Hona inkestak planteatzen dituen pautetako batzuk: umea ezin da geldirik egon geldi egon beharko lukeen egoeratan, ez ditu arauak betetzen, hankak eta besoak arrazoirik gabe mugitzen ditu, kontzentratzeko arazoak ditu, pentsatu gabe erantzuten du... “Hain dira galdera irekiak, edonork baietz erantzun dezakeela”.

Gainera, neurobiologoak argi du haurrak 6 urte bete aurretik ez litzatekeela nahasmendua diagnostikatu behar, lobulu frontala adin horretan hasten delako bere osotasunean lan egiten. Sarri, aurretik diagnostikatzen zaie, baina 3 urterekin ume guztiek dute gehiegizko mugimendua, koordinazioa eta oreka garatzen eta esperimentatzen ari direlako. “Hainbatek dio 3-4 urterekin ume batzuei joera ikusten zaiela eta komeni dela lehenbailehen medikatzea. Ni oso kritikoa naiz horrekin, ume bati hiperaktibiterako ‘joera ikusten zaionean’ burmuinak dituen baliabideak lantzea delako bidea, lobulu frontala farmakologikoki aktibatu aurretik, bestela ezinezkoa da lobulua garatzea”, kritikatu du Lópezek.

Diagnostiko egokia egiteko, irizpideak findu behar dira lehenik, behar bezalako ebaluazio konpletoa funtsezkoa da, eta umearen garapenean ondo prestatuta dauden psikologo, neurologo eta neuropsikologo profesionalek egin beharko lukete. Bestela, irakasle

eta gurasoen tolerantziaren eta irizpidearen arabera hartzen da erabakia.

Neurodopinaren atarian?

Kontraesana dirudi, baina AGHN dutenei estimulatzaileak ematen dizkiete, sistema neuro-transmisoreetan eragiten baitute. Gurean, metilfenidatoaren deribatuak dira ohikoenak, Ritalin, Rubifen edota Concerta izenpean. Adin txikikoen artean psikofarmako gehien banatzen dituzten herrialdeak honakoak dira, hurrenez hurren: AEB, Kanada eta Espainiako Estatuak. Ahots kritikoenek salatu dute haur errebeldeak menpean izateko metodoa dela hiperaktibitate medikatua, kontrol sozialerako estrategia, otzan ez direnak arrastoan sartzeko. “Joera dago pentsatzeko umearen burmuinaren garapena espontaneo eta perfektua dela, eta dena ez badoa behar bezala, medikuntzarekin lotutako arazoa dela”, dio Lópezek.

Bere esanetan, egoera bereziki larria da AEBetan, dagoeneko ez baita soilik arazoak dituen umea medikatzen: “Zertarako igaroko du seme-alabak arratsalde osoa etxeko lanak egiten, pilularekin bi ordutan egin baditzaizke? Beldurgarria da, kirolean horri dopatzea deitzen zaiolako, baina garunari eragiten diotenean, neuropotentziatzailea”. Neurodopinaren atarian ote gaude? Azken finean, mendizaleari ez zaio uzten dopatuta igotzen, bada buruaren kasuan berdina izan beharko luke: “Helmugara iristeagatik edozer gauza ahalbidetzen ari gara, eta ezin dutenei lagundu egin behar zaie, baina etikoki ere ikusi behar dugu noraino iritsi behar duen haurrak”. Gainera, burua bere kabuz lantzea eta garatzea oztoka dezake pilulak, sakoneko problema estaliz. Medikamentuak nerbio-sistema zentrolean eragiten du, gure buruan informazioa prozesatzeko moduan, eta hori droga izenez ezagutzen dugu 14 urtetik aurrera hartzen denean. Lehen aipaturiko %2-3arentzat hainbatetan lagungarri izan daitekeela aitortu du neurobiologoak, baina halakoetan ere ez litzatekeela inoiz 6 urte bete baino lehen errezetatu behar —eta egiten da—, eta inoiz ez bizpahiru urte baino epe luzeagorako —eta egiten da—, insomnia, hazteko arazoak, apetitu falta, tikak... ere sor baititzake.

Lópezen ustez, medikuen artean joera dago ikasketa arazoak medikalizatzeke, etsita iristen zaizkien gurasoen eta irakasleen eskaerari erantzunez. Baina Herbehereetan adibidez, umeak errazkeria horrekin ez medikatzeke neurriak hartzeari ekin diote. Hiperaktibitatea ikuspegi biomedikutik artatzen da gehiago, psikohezigarritik baino; hala baieztatu digu Angela Magaz ALBOR-COH-

Bizikleta gabe bizikletan ibiltzera

Nahasmendua batzuetan ez da hiperaktibitatean oinarritzen, arreta gabezia baizik. Kasu honetan, mutilen eta nesken arteko proportzioa berdintsua da, eta kosta egiten zaie garrantzitsua den horretan arreta fokalizatzea. Angela Magaz psikologoak kontatu duenez, zentroan neska bat izan zuten bizikletan ibiltzera joan zena, baina bizikleta eramatea ahaztu zitzaion! “Ez dira hiperaktiboak bezalakoak, ez dute enbarazurik sortzen eta ‘euren munduan’ egoten dira, horregatik askotan ez dira garaiz artatzen, eta ikasketa arazo handiak izan ditzakete gerora”.

“Alferra eta errebeldea nintzen amarentzat eta gainerakoentzat”

46 urte ditu Estibaliz Ayarzak, eta Lezokoa da. Oso argi du Arreta Gabeziaren Hiperaktibitate Nahasmendua, bere kasuan behintzat, kalterako izan dela; ‘arazo’ gisa aipatzen du beti: “Txikitan desberdin sentitzen nintzen eta banekien zerbait neukala, baina ez nekien zer. Alferra nintzen amarentzat eta gainerakoentzat, baina ezin nuen ikasi, liburu aurrean jarrita orduak pasata ere, eta min ematen du horrek. Edo ez nintzen denboraren jabe eta etxera behar baino beranduago iristen nintzenez, errebeldea nintzen”. Horregatik, semeak jokaera eta problema berdinak zituela konturatu bezain pronto, psikologora eraman zuen, ondorio garbirik gabe. Halako batean, duela hamar urte, hiperaktibitateari buruzko erreportajea ikusi zuen telebistan, Gipuzkoako ADAHIGI elkartera gerturatu eta susmoak baieztatu zizkieten: 7 urteko semeak AGHN zuen, eta berak ere bai.

Egun oraindik, eserita egotea kostatzen zaio Ayarzari, edo telebista aurrean lasai jartzea, ezin du liburu luzerik irakurri, galdu egiten delako, albisteak entzun arren batzuetan ez da informazioaz jabetzen, etxean *desastre* samarra da gauzekin... Nahasmendua betirako dela dio, urteekin kontrolatzen ikasi arren. Elkartean ere asko lagundu diote, bai berari eta bai semeari, eta ezaugarri bereko jendearekin elkartzea oso mesedegarria zaie. ADAHIGIko atea jo zutenean, hamalau kide ziren elkartean, 300 bat dira gaur.

Aholkuren bat gurasoei? “Ume bat ez da alferra berez, arrazoiren bat dago beti atzean (hiperaktibitatea ez bada, ez duela ondo entzuten, edo ez duela behar bezala ikusten...), eta motibo hori aurkitzea funtsezkoa da, nola jokatu erabakitzeko”.



Seko psikologoak. Logikoa dela pentsa genezake, ezaugarri fisikoa delako, “baina denak du oinarri biologikoa, eta gure esperientziak erakutsi digu farmakoa laguntza baino ez dela, ikasketa prozesua azkartzeko erabili daitekeena, baina ezin dugu espero horrekin bakarrik egoera hobetuko denik. Entrenatu egin behar da burmuina, teknikak eta abildadeak garatu, gure helburua delako pertsona autonomoa eta independentea izatea, eta ez menpeko”.

Pentsamenduaren eta ekintzaren arteko hartu-emana, mugimendua eta arreta kontrolatzen irakasten diete hiperaktiboari ALBOR-COHSen. Bakoitzaren arabera planak garatzen dituzte, Magazek azpimarratu moduan ezaugarri bat besterik ez delako hiperaktibitatea eta ume bakoitzak dituen beste ezaugarrien, egoeraren, inguruaren arabera baldintza oso desberdinak izan ditzake. Gurasoak eta irakasleak ere entrenatzen dituzte. Lópezek garbi du eskolaren egitekoa: “Pertsona bakoitzaren behar indibidualei erantzungo dien sistema behar dugu. Hez-

AGHN-aren atzean bi arazo egon daitezke: edo berezko arazoa du lobulu frontalak, edo burmuineko beste zatiren bat ez dago ondo garatua. Akatsa da dena zaku berean sartzea

kuntzak bultzatzen duen dibertsitatearen aldeko mezuak benetakoa izan behar luke, eta ume batek behar duenean une batez altxa eta paseo bat eman, bere dibertsitatea da, baita psikologo, pedagogo... baten babesa behar badu ere”.

Entrenamenduarekin, jokabide-pautek oso positiboki eboluzionatu dezaketela nabarmendu du Magazek, nahiz eta hiperaktibitatea beti mantentzen den ezaugarria izan. Lópezen iritziz, baina, adinarekin asko jaisten da hiperaktibitatea —gutxiago arreta gabezia—. Kontuak kontu, heldu hiperaktiboak mugimenduak kontrolatzen ikasi ohi du adinarekin, baina ez da hiru orduz hondartzan etzanda egongo, beti izango du zereginen bat esku artean. Enpresa munduan adibidez, hiperaktibo asko dagoela uste du neurobiologoak, arrakastatsu gainera: “Kongresu bat di-da antolatzeke gai dira hainbat enpresari, eta politikari batzuei hiperaktiboak direla ikusten zaie; Sarkozyri, esaterako”. Ezaugarria abantaila bihurtzea, horra erronka. ■

Rafael Alegria

«Elikagaien subiranotasunik gabe ez dago subiranotasun politikorik»

Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatzeke manifestazioan begi biak arranpalo esan zuen, “jendetza hau atzetik banu Hondurasen presidentea nintzateke”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Lurrarekin duzun harremanak genetikoak dirudi.

Gurasoak nekazariak, analfabetoak eta lurrik gabekoak ziren. Morolica izeneko herrixkan jaio nintzen arren, handik gutxira abiatu ginen aitarekin Oroquinara lan baldintza hobeen bila. Mendi erraldoi bat zen hura, eta garai haietan ez zegoenez basozainik, mendiaren sakonenera jo genuen ahal bezainbat lur gureganatzeko. Baina jakina, gure aitak mudatu ahal izateko saldu egin zuen Morolican geneukan apurra, eta Oroquinako lurak ezer ematen hasterako miseria gorrian geratu ginen. Hori hala, anaia eta biok lurjabe batzuen soldatapeko itzain bihurtu ginen lehenbizi, eta gerora “escolas radiofónicas” alfabetatze programan irakasle eta jainkoaren hitza zabaltzen ibili nintzen. Horretan nenbilela, Honduras hegoaldean, eliza katolikoak babesten zuen Ligas Campesinas nekazal mugimendua sortzen ari zela entzun nuen, eta gurean lurjabe asko eta lurrik gabeko nekazari gehiago zegoenez, mugimendua gurera ekarri eta artikulatzeari ekin nion. Hor hasi zen nire nekazal borroka. Lurjabeak pistola eta guzti ibiltzen ziren, baina elizak pobreenekin konpromisoa zeukan garaia zen, eta gure borroka klandestinoa izan arren, justua zenez, bere babes osoa geneukan. 1975eko ekainean Horcones-eko sarraskia pairatu genuen, 14 konpañero erail zizkiguten, tartean moja eta fraide batzuk. Latza izan zen, krudela. Handik urte batzuetara Central General de Trabajadores-ek hiriburura igorri ninduen sindikatuen arteko kooperazio plan bat ezartzeko, baina ez nion utzi nekazari mugimendua bultzatu eta zabaltzeari, Vía Campesina sortu eta nazioarteko mugimendu bihurtu arte. Odolean daramat lurra. Gure aitak lekuz aldatu behar izan zuen lur bila. Nik sistema aldatu nahi dut.

mendua bultzatu eta zabaltzeari, Vía Campesina sortu eta nazioarteko mugimendu bihurtu arte. Odolean daramat lurra. Gure aitak lekuz aldatu behar izan zuen lur bila. Nik sistema aldatu nahi dut.

Norena da lurra?

Nekazariarena, lantzen, zaintzen eta defendatzen duenarena. “Lurra maite duenak aberria maite du” edo “lurra ez da saltzen, berreskuratu eta defendatzen da” bezalako esloganak dauzkagu gurean. Lurak ezer emango badu nekazariaren izerdia ezinbestekoa du, eta nekazariak nahitaezkoa du lurra, soldatapekoa izan gabe bizi ahal izateko. Zergatik uste duzu sortzetik daukala nekazariak lurrarekin lotura sentimental eta kultural berezkoa? Askotan esaten dugu lurrik ez daukanak ez daukala aberririk, lurra dela gure euskarria, elikagaien subiranotasuna ahalbidetzen diguna. Denborarekin aldatzen joan da lurraren kontzeptua. Erein eta uzta jasotzeko izatetik berezko merkataritza-balioa izatera pasa da. Horren aurka borrokatu dugu beti, horren

Nortasun agiria

Morolica-n (Honduras) sortu zen 1953an. Honduraseko nekazal mugimenduaren artikulatzaile eta antolatzaile nagusietakoa izateaz gain, Vía Campesinako bozeramailea izan da, eta gaur egun, Honduraseko Frente Nacional de Resistenciaren lider enblematikoenetakoa da.





Honduraseko hurrengo presidentea?

Nekazari askok diote heldu dela tenorea benetako protagonismoa hartzeko. Gehiengoa gara, borrokaren lehen lerroan ikusten gaituzte, zergatik ez boterean? Errekonozimendua badudala esaten da, nekazariak ez ezik gizartean ezagutzen nautela, Evo Morales eta Hugo Chavezen aspaldiko laguna izateak ere aldeko puntuak ematen omen dizkit, baina nik ez dut horretan pentsatzen. Frente Nacional de Resistencian gogoeta fasean gaude, eta oraindik alderdi politiko bihurtuko garen ez badakigu ere, zaude ziur erresistentziari tresna politikoa emango diogula. Horregatik nire eguneroko zeregin eta borroketan jarraitzen dut, konbentzituta bainago estatu kolpetik hona Honduras desberdina dela, eta martxan den prozesu honek ez daukala atzera bueltarik.

aurka isuri dugu odola, horren aurka lurperatu ditugu konpañeroak.

Europar, jendeak lurra berea dela uste du, ez bere ondorengoa.

Europar kapitalismo basatia da nagusi, eta lurra merkantilizatu denez, ondasun komun bat izatetik neoliberalismoaren bitarteko preziatuenetakoa izatera pasa da. Pentsa Europar hektarea bat zenbat kostatzen den, urre gorria baino garestiagoa da! Domino efektuan gura ere hedatzen ari da izurritea, eta kapitalismoa, multinazionalen bidez, lurra bere egiten ari da, soroak eskuragaitz bihurtuz. Guk oraingoz abantaila bat daukagu alta, populazioaren %52a rurala gara, eta oinarritzko elikagaiak nekazarien izerditik datozela zuzenean. Europar ez, apenas dagoenez nekazaririk, nazioarteko enpresa erraldoiek kontrolatzen dituzte haziak eta elikagaiak. Horregatik da garrantzitsua Vía Campesina bezalako mundu mailako erakunde bat, hegoa eta iparra batuta soilik garaitu daitekeelako kapitalismoa. Bidean goaz, eta ez da kasualitatea Hego Amerikan neoliberalismotik sozialismorako jauzi bete-betean egotea.

Baina bitartean, interes ekonomikoek dantzatzen dute mundua, eta ziklo ekonomikoak naturarenak baino laburragoak dira.

Klase borroka baten erdi-erdian gaude. Nekazariak eta mugimendu sozialak batetik eta kapitalismoa bestetik. Kontua da borroka horretan bizi eta irauteko nola metatzen ditugun gure indarrak. Hego Amerikan gure txinpartek sua piztu dutela sentitzen dugu, baina sua hauspotzeko, boterean eragiteko posturan egon behar dugula jabetu gara. Zer gertatzen ari da Bolivia, Venezuela, Brasil eta abarretan? Horren aurrean kapitalismoa egunetik egunera oldarkorragoa da, modernoagoa, eta garaitzen nekezagoa. Esaterako, lehen askoz errazagoa zen lurra berreskuratzea. Lurjabeak gerrian pistola sartuta zaldi gainean ibiltzen ziren sonbrerodun aitona tripa-handi batzuk ziren, baina gaur egun teknologiaren puntaren punta maniatzen duten multinazionalen egiten dugu topo. Aitona zaharraren kontra borrokatze-tik kapitalismoaren kontra borrokatzea pasa gara, eta kapitalismoak dena kontrolatzen du eta kontrolatzen ez duena erosteko ohitura maltzurra du. Zorionez, natura ezin-gu dute inoiz ez kontrolatu ez erosi, eta goiz ala berant, ziklo ekonomikoak egokitu beharko dira.

Ez da kasualitatea beraz, lehen nekazaritza-industriak baizik ez zuela balio ziotenek, neka-

zari txikiek beti bermatu dituzten produktuak eskatzea gaur egun.

Jakina! Neoliberalismoaren gorenean, nekazaritza-industria modernizatzea zen kontua, enpresek lur guztiak jabetzan hartu eta nekazari txikiei soldata ordaintzea. Saiatu ziren lan iraunkorra eskaintzen, bestela edukiko ez genituen baldintzak eskaintzen, baina hordagoari eutsi egin genion. Zerbitzu publiko guztiak pribatizatzea lortu zuten arren, enpresa erraldoi horiek ez ziren sekula gure landa txikietara heldu. Hori ikusita, estatua konbentzitu zuten nekazari txikiak ez babesteko, eta horrek gainbehera itzela ekarri zuen arren, eman diogu buelta, eta egun mundu guztiak onartzen du oinarritzko elikagaiak nekazari txikiek ekoiztikoak direla. Jendea hortaz kontziente deno, nekazariak garrantzitsuak izango gara, eta molde neoliberal basati horiek iraganera kondentuko ditugu.

Elikagaien subiranotasuna omen da etorkizuneko lorpen bide bat.

Duela 20-25 urte estatuek nekazaritza abandonatu zuten, dena merkatuaren esku utziz, eta boteretsu eta ahulen arteko borrokan ahulak zereginik ez daukala nahita ahantziz. Oraindik orain, toki batzuetan lurra, basoa edo nekazaritza merkantzia huts bezala ikusita dago, baina nekazal borrokari esker estatu batzuk begiak ireki eta gerorako parioak egiten hasi dira. Gu gaude apustu horien giblean, estatua burgesiaren espresio gorena baita, eta ez du sekula ezer oparitzen. Kostata baina ulertu dute elikagaien subiranotasunik gabe ez dagoela subiranotasun politikorik. Orain arte ez zuen ardura nondik zetozen elikagaiak, nork ekoizten zituen, nola, alimentuak egotea zen kontua, baina erroetara gatoz berriz. Oraintsu arte, nekazaritza erreformez hitz egitea delitua bazen, Hego Amerikan nekazal iraultzari buruz mintzo da jendea. Hego Amerikan muturrera eraman dugu

lurraren borroka, lurra baita elikagaien subiranotasuna lortzeko oinarritzko bitartekoa, eta elikagaien subiranotasuna interes publiko bat denez zirkulua ixten ari gara.

Mundu mailako ezkeraren aitzindaritza zarete?

Beti esaten dut hiru mugimendu baizik ez daudela mundu osoan artikulatuak: kapitalismoa, eliza eta Vía Campesina. Horrek ahalbidetu digu borroka antolatu eta bultzatzea, bai maila lokalean bai mundu mailan, beti ere kapitalismoaren erakunde korrosiboenen aurka. Gu gara kapitalismoaren mundu mailako krisi honen errudunak. Beti gustatu izan zait Mao Tse-Tung-i irakurritakoa. Etsaiak eraso eta aurre egin ezin zaionean beldurrik gabe egin behar da atzera, baina guk atakatu eta ihes egiten digunean azkenerraino jazarri behar zaio. Beraz, pertsegitu dezagun kapitala, segi dezagun ahultzen. Horretarako garbi daukagu ezin dugula borroka hori bakarrik eraman, aliantzak behar ditugula, aliantzak sektore guztiekin. Aitzindaritzaren pankarta badaramagu ez da argazkian agertzea gustatzen zaigulako, kaltetuenak geu garelako baizik. Kaltetuenak eta konbentzitzenak ere bai. Itsu-itsuan sinesten dut sozialismo berri baterantz goazela, baina ez sozialismo orokor baterantz, tokian tokiko errealtateari erantzuten dion sozialismo baterantz baizik. Bukatu da arazo bat dagoenean Marxen manuala errepasatu eta aplikatzea. Horrek ez du balio. Bakoitzaren errealtateetik abiatuta soluzio eta aurrerabide berriak sortzea dagokigu. Horixe da aitzindaritza.

Honduras estatu kolpista da.

Zelaia presidentearekin aurrera gindoazen. Erreforma politiko eta sozialak martxan zeuden, lurrari lotutako 18/2008 dekretuak onura asko zekartzan, Honduras ALBA-ra sartu zen, eta petrolioaren kontrola multinazionaleri kendu eta estatuaren eskutara pasa

EUSKAL ANTZERKIA IRAKURGAI

azken argitalpenak:

Patxo Telleria

- Euskara senzilloaren maniestoa
- Larri Halzetara
- Euskarazetamol

Oier Guillan

- Herio heroi
- Arra. Arraroa.

eskura itzazu!!!

Arrainen bazka
Javier de Dios López

Ni naiz Hector, ni bakarrik
Jokin Oregi

Kinseyren showa
Jesús Díez

Haritzaren azalera zehatza
Aristides Vargas

Emmanuel Kanten azken egunak
Alfonso Sastre

Armiarmategian (isil-mihisilka)
Pablo Barrio

Bartzelona ahaztu
Carles Batlle

Baba zango-horiak
Catherine Zambon

Hegazkin guztiak galtzen zituen emakumea
Josep Maria Miró i Coromina

Durangoko Liburu eta Diska Azokan

EUSKAL HERRIKO ANTZERKIZALE ELKARTEAREN

elkartearen stand-ean

2010EKO ABENDUAREN 5A **argia** ▶ 13

zen. Baina multinazionalen petrolioaren kontrola kentzea lehoiari bere presa ebeste bezala da, eta ez dago dudarik, estatu kolpearen gibelean multinazional horiek zeudela, Bushen gobernu, alderdi tradizionalak eta kupula, eliza katolikoaren kardinala eta Honduraseko oligarkia. Iazko ekainaren 28ko goizeko 5:40ean gertatu zen, goizeko 6etan “constituyente” berri bati buruzko herri-kontsulta hastekoa zenean. Jendeak azkar erreakzionatu zuen, mobilizazioak ikaragarriak izan ziren. Nazioarteko komunitateak ere estatu kolpea kondenatu zuen, Amerikako Estatu Batuak ordena konstituzionala itzultzearen alde agertu ziren, eta egungo Frente Nacional de Resistencia Popular deritzonaren hasia izan zen Frente Nacional de Resistencia Contra el Golpe de Estado sortu zen. Esku artean borborka genuen marmita ikusita, diktadura erortzen ari zela sentitu genuen, baina azarorako hitzartuta zeuden hauteskundeetatik ateratzen zen gobernu onartuko zuela esan zuten Amerikako Estatu Batuek nazio-arteko komunitatearen iritzia aldaraziz.

Beste behin ere interes ekonomikoak interes politikoen gainetik.

AEBek erabakitzen dute gure herrietako politika. Kolpistekiko jarrera irmoa zuten bitartean, kolpisten zilegitasuna ezdeusa zen, baina zizpa sorbaldaz aldatu zutenean, bakarrik geratu ginen, ezer gutxi egiteko aukera eta medioekin. Hauteskundeetan ez bozkatzera deitu genuen eta herritarren %70ak ez zuen botorik eman. Pentsa zenbakekoa zen gure indarra, sei hilabetez jarraian, 194 egunez,



OFF THE RECORD

Zergatik?

Munduan bueltaka ibiltzearen neke eta jet-lagaren ajeaz harago, atsegin, limurtzailea eta gertukoa da hizketan. Hitz ederrak baizik ez ditu gure herriarentzat. Hitz ederrak, kanpora atera garen arte. “Zergatik hainbeste hotza hain herri ederrean?” galdetu digu, justizia sozialaz ari balitz legez.

mobilizazioak mantendu genituela. Asteleheneetik ostiralera kalean egoten ginen, zapatuetan artista erresistenteek kontzertuak eta poesia errezitaldiak eskaintzen zituzten, igandeetan asanbladak, eta astelehenean berriz kalera. Hor sortu zen indar itxaropentsuak politiko bihurtzeko bokazioa du, gobernu kolpistak hor dirauelako, AEBen eta nazioarteko komunitatearen babes osoarekin.

Zer suposatzen du estatu kolpista bateko erresistentziaren liderra izateak?

Oso garrantzitsua izan da estatu kolpearen aurka nekazariak jokatu duten papera. Eurak dira oraindik orain bideak eta zubiak blokeatzen ari direnak, eta horrek erresistentzia zabalagoa antolatzeko zilegitasuna eta betebeharrak ematen digu. Baina horrek bere prezioa dauka, eta jazarpen izugarriak jasan ditugu, 127 konpañero erail dizkigute, asko zauritu, espetxeratu, mehatxatu... Vía Campesinako egoitza lau aldiz utzi dute hankaz gora, balaz josita. Izuaren politika gailentzen denean ez dakizu ezer, ez duzu ezeren bermerik, eta ego-

era hain dagoenez polarizatua ez naiz karrikara bakarrik irteten. Badakit jende asko daukagula atzetik, baina baita beste batek erail nahi nauela ere, oligarkiak gu desagerraraziz mugimendua desartikulatzea baitu helburu. Kuriosoa dena da, giza eskubideen erakunde gorena arabera estatu kolpistak bizkartzainak jarri behar lizkidakeela, baina zorionez ez dit inork ezer eskatu, eta nik ez daukat eskatzeko asmorik. Nola babestuko naute akabatu nahi nautenek? Eskerrak konpañeroen babes eta zaintza osoa dudana. ■



ellauri
HOTELA


Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

ASTE HONETAKO zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elxalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1



Inguru Abentura

4 bikoteentzat
elurretako erraketekin saioa

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

2



Txuri-Urdin izotz jauregia

2 harpidedunentzat
launa sarrera opari

Anoetako pasealekua, 24
Donostia GIPUZKOA

www.eltxuri.com

3



Urki txakolina

Txakolindegira bisitaldia
10 laguneko taldearentzat

Askizu Auzoa
Getaria GIPUZKOA

www.urkitxakolina.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2253. Argia)

ONDARRE

• Fernando Ramirez Sanchez-Paniagua (Bilbo)

URKO MENAIA

• Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
• Lukas Etxeberria Sagastume (Gasteiz)
• Basque Heritage SL (Donostia)
• Miren Abalde Alzuat (Donostia)
• Txomin Etxebarria Bereziartua (Bilbo)

AQUARIUM

• Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)
• Gotzon Garitaonandia Euskaltegia (Bermeo)
• Kandido Eizagirre Soralue (Donostia)
• M^a Angeles Azpiroz Harizurieta (Barañain)

MUNDUKO IPUIAK

• Andoni Urzelai Eraña (Durango)
• Juan Bautista Agorria Burgoa (Arrasate)

TXURI URDIN

• Jose Mari Balerdi Munduate (Alegia)
• Alaitz Katarain Azaldegi (Idiazabal)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

Nevadako azken euskal artzainak

Herrialde arrotzean bizimodu duina eramateko borrokaz eta komunitate bateko kide sentitzeaz mintzo da *Amerikanuak* dokumentala, egileen hitzetan. Garratz eta malenkoniatsu, baita umorez hainbatetan, euskal diasporan ezagun zaigun historia du ardatz, dirua irabazteko asmoz artzain joan eta azkenean han geratu zirenen.

MIKEL GARCIA
Argazkiak: Amerikanuak



JUANITO JUARISTI *PARRILLAS*-EK laurogeitaka urte ditu, eta hoguei pasa dira azkenekoz Euskal Herrian izan zenetik. Beharbada horregatik du urrunean galtzen den begirada nostalgiko eta nekatua, Nevadako (AEB) Elko herrian duen apartamentuaren bakardadean. Gehiago ere badio begirada horrek, “dena kontatuko banu...” dio, eta dena ziurrenik ez, baina asko kontatu digute *Parrillas*-ek, Alfonso Igoak, Jose Leniz *Txapo*-k, Bixente *First Class*-ek, Nikolas Fagoagak, Ramon Zugazaga *Akerra*-k... Hainbat eta hainbat euskaldun gazteren moduan, 1950eko hamarkadaren erdira arte Ameriketara egin zuten alde, artzain gisa dirua irabazteko.


Baina artzainaren bizimodua ez da nolanahikoa. Elkarriketatuetako batek hamasei urte eman zituen mendian, animalia kon-

painia bakar. “Zenbatek utzi zuten bizitza mendian! Zenbatek bukatu zuten zorotuta...”. Triste gogoratzen ditu ardi arteko urteak. Berdin protagonista lesakarrak, lanaren gogortasuna eta mendietako isolamendua eta bakardadea gogoan. Beste hainbatek aldiz, aitortzen du bizitzako urterik onenak izan direla artzain beharrean emandakoak.

Hobeto edo okerrago, bakoitzak bere modura bizi izan du esperientzia, eta hura guztia gogora ekartzen dute Elkoko tabernan, alai

baina nostalgiko, zurrut, karta-joko, barre eta solas artean: nafarrek eta bizkaitarrek euskalkia dela-eta elkar ulertzeko hasieran zituzten komeriak, garaiko maitasun eta sexu historiak, artzain ona izateko ezaugarriak... Lehen herri bizia zen Elko, euskaldunetz bete, baina artzaintza desagertu-

Artzainaren bizimodua ez da nolanahikoa. Elkarriketatuetako batek hamasei urte eman zituen mendian, animalia konpainia bakar. “Zenbatek utzi zuen bizitza mendian!”



tzear den mundua da dagoeneko, eta ez dago euskal artzainik Nevadan, perutarrak eta txiletarrak dira oraingoak. Beldur da elkarrizketatuetako bat, ez baitu uste urtetan mantendutako artzain-negoziari helduko diotenik seme-alabek, “eta dirua baino askoz gehiago da hor inbertitutakoa, bihotza dut inbertitu”.

Elurra mara-mara

Izan zenaren itzal urruna da Elko. Kasinoa, *bowling*-a, tabernak baditu –euskal izendunak, hainbat–, baina galdu du sasoi oparoetako argi eta distira. Kale erdi-hutsak erakusten dizkigu dokumentalak, bizimodu lasaia, paisaia elurtu, hits eta hotzean. Inguru goibelak bat egiten du protagonistek izandako bizimodu latzarekin, eguneroko kezka eta ardurek ezkutatu ezin duten nostalgiarekin. Ez da film tristea, umoretsu erantzuten dute protagonistek pasarte ugaritan, baina bizitza bere

Elkon, tabernan elkartzen dira artzain ohi euskaldunak (ezkerreko orrian). Goian, ezker-eskuin eta goitik behera: Juanito Juaristi Parrillas; lagunak kartetan; Alfonso eta Mary Igoa; eta Ramon Zugazaga Akerra.

gordinean erraza ez dela igartzen diegu konlariaren hitz eta isiluneei, eta malenkonia kutsua dario emaitzari.

Tonuarekin asmatu dute dokumentalaren egile Gorka Bilbao gernikarrak eta Teruelgo (Espainia) Nacho Reig-ek. Audience musika talde bizkaitarrak filmerako sortutako soinu bandak ere lagundu du horretan. Gorka Bilbaoren aitona hamabost urtez artzain aritua zen AEBetan, eta hori izan zen proiektu honen ernamuina. Berde Produktzioak ekoiztetxearekin elkarlanean, bost astez Elkon izan ziren eta hala gorpuztu zen *Amerikanuak* dokumentala, Donostiako Zinemaldiko aurtengo edizioan estreinatua.

Elkoko biztanleen erretratu txukuna gauzatu dute 91 minututan, euskal diasporaren zati bat Ameriketako mendebaldean nola egokitu zen ezagutzeko aproposa, galtzen ari den bizimoduaren lekuko. ■

Zientziaren kutxaGuneko simulagailu berrietan, **dibertsioa** ziurtatuta duzu!

- 4 plaza bi plataforma.
- 9 pelikula ezberdin eta joystick-arekin gidatzeko aukera.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

gizarte kutxa
zugandik zugana

Donostia - www.kutxaespacio.es - 943 012 478

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta

1998 OSTIRALE SANTUKO
ITUNAREN KARI,
ESPAINIARRREK':

«IRLANDA EZ DA
ESPAINIAREKIN
ALDERATZEN AHAL»

2010 KRISI EKONOMIKO
REN BURREAN,
ESPAINIARRREK':

«IRLANDA EZ DA
ESPAINIAREKIN
ALDERATZEN AHAL»



BIZKAIKO
BERTSOIARI
TXAKIAROKA 2010

**2010eko
abenduaren
18an,
BEC-en, 17:30ean**

**PLAZA
AKROBATIKOAK**

**ERDU
METROAN!**

FINALA

Bizkaiko
Bertsotzaile Elkartea

**BFA
DFB**
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

bbk

**Bizkai-
ko Txak-
kolina.**

metro bilbao

Bilbao
euskara

**BIZKAIA
ARENA**

LAGUNTZAILEA

argia

Poeta banandu-berri baten egunkaria

A

zaroak 1: ez dut bate-
re atsegin egoera hau,
eta sekula baino
muturbeltzago jartzen
ari zait orri zuria.

Hitzak pasatu dira. Eta urteak. Tangoan ez dira ezer, baina urte asko dira arin-arin baten doinuuan. Ez dut gehiago hitz egingo. Erraz esaten da. Azaroak 2: ez gaude udaberrian, eta, hala ere, nire lorategian arazo asko hazten dira. Badut hildako lore guztien antza. Martxoak 3: berak maite ninduen, nik bera ere bai. Kanta txarrek ez dakite isilik egoten. Urriak 14: Amarekin hitz egin dut. Euria etengabe ari du, suilaz. Dibortzio-paperak mahai gainean jarri ditut, sinatzeko. Azaroak 4: egunez lo nago, gauez, berriz, esna. Eguna raperoez lepo inguruan daramaten urrezko kate astuna bezala luzatzen da. Gauak oso ondo ematen dit, pena da atentatuen ondorioak ertratatzeko dituzten argazkilaririk ez egotea. Azaroak 5: dena berez bezala dator, ezer eskatu beharrik gabe, zorigaitzak ez du ezertxo ere komentatzen ez galdetzen, bereziki galdetzen. Irailak 6: aurten ez da langile autonomo berrientzat diru-laguntzarik emango. Enplegu politika aktiboak “ukaezinak” direla dio Gemma Zabaletak. Unerik okerreana aukeratu dudala autonomo izateko, hori da ukaezin. Ekainak 7: kultur-ekimenak erdira murriztea erabaki duten berri ematen den bakoitzean, beti eta hutsik egin gabe krisia jartzen dute aitzaki orain erakunde guzti-guztiei. Berdin-berdin egiten zuten ustez krisirik ez zegoenean eta berdin-berdin zitzaien orduan ere. Ezin dut sufritu kultura hau! Azaroak 8: kezkarriena ez da orain gastuak biderkatu egin zaizkidala batetik eta bestetik, eguna joan eta eguna etorri denbora garesti ordaintzen hasi naizela baizik. Apirilak 16: zer egunetan bizi garen ez dakit. Zer egunetan hiltzen

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

ere ez. Ez esan sekula inori asko nekiela. Azaroak 10: ahaztu nazioarteko haurren adopzioak ematen dituen buruhaustekak. Bila nazazue ni oraindik haurdun ez dauden arbasoen artean. Azaroak 11: indarberrituta sentitzen naiz, tximeletak egun bat bete baino lehen hiltzen dira, ni larba zaharra naiz

dagoeneko. Azaroak 11: burua galtzen ari naizela usteko du norbaitek, baina ez da egia. Ez burua bakarrik, nik dena galdu nuen kobrezko jainkoaren irudia kutxatik atera eta hain berezkoa zuen ibilera makur harekin kalean behera abiatu zenean esku odoltsuak bizkar atzean eta hitzik esan gabe. Urtarrilak 4: ezkondu ginen gizarte-zerbitzuen diru-laguntza jasotzearen premiagatik, beste batzuk ezkondu egiten dira maitasunagatik. Ez dakit zer den okerrago. Otsailak 7: egunen ordena zehatza galdu egin dut erabat. Dena Daliren ordularien itzaletan geratzen da. Uztailak 2: ez dut bihotza zabaltzen edo nire barne kontuak kontatzen ausardiagatik, ni ez naizelako batere ausarta, ez eta nire burua gupidatzea-
gatik. Horrela agertzen naiz, baina ez daki-
dalako bestela zer idatzi, eta ezin dudalako
besterik idatzi. Azaroak 19: “*Estimado cliente,
en su cuenta ha ingresado una transferencia de
715.15 euros. Remitente: Perlita Arreola. Núme-
ro de control: BB64473717. Siga el enlace para
consultar la información. Atentamente, su banco
BBVA*”. Mezu bat agertu zait horrela. Puta-
kumeak! Arazoak 22: gogora

etorri zait Juan Ramon Jimenezen *Poeta ezkondu-berri baten egunkaria*. Bai izenburu ederra! Abenduak 31: gorroto diot urte zaharrari. Eta urte berriari ere bai. Eta gizaki berri izateko erabakia hartua nuen aurtengorako. Fun-
tsean, ez aspertzeko bide bat da, gero ez dudalako inoiz gogorik izaten gizaki izateko. Azaroak 23: Barkaidazue... ■



Ahaztu nazioarteko haurren adopzioak

ematen dituen buruhaustekak.

Bila nazazue ni oraindik haurdun

ez dauden arbasoen artean



Edorta Arana

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKO GAJETAN ADITUA.

Jauzi digitala

Telebistaren bilakaeran, hamarkada denbora erreferentzia garrantzitsua suertatu izan da. Orintsu arte. 80koak, telebista zentralizatuaren haustura ekarri zuen eta kanal autonomikoen etorrera. Handik hamar urtera jaio ziren lehen kanal pribatuak. Eta hamar beranduago, mende berriaz bat, satellite bidezko plataformak lanean ari ziren. Hurrengoko txanda itzalaldi analogikoarena izan da.

Hori bai, itxura guztien arabera, hasi den epe berria laburragoa izango da. Aldaketak pausoz pauso baino, kolpeka datoz. Digitalizazioak panorama guztia hankaz gora jarri du eta lehengo joko arauak eta parte hartzaileak tokiz kanpo utzi ditu.

Lehen, etxeko pantaila nagusiaren “atzetik” zeudenak identifika errazagoak ziren. Publikoak ala pribatuak, kanalen jabeak beti nagusi. Orain aldez, Internetek eredia aldatu eta inoiz minutu bat bera ere ekoiztu egin ez duten bideo hornitzaileak dira arrakastatsuenak. Kanal kopurua eta tematizazioa sendotuz doaz eta ikusleek beraiek sorturiko edukiek audientzia handiak lortzen dituzte. Telebista tramankulua bera ere, ordenagailuarekin hibridatzen ari da. Alderantziz izanik ere, parra.

Telebista deitzen dugunaren eskaintza bera ere aldatu da dexente. Entretenimendua jainkotasuna, informabide gisa pisua galduz doa. Hedabi-



IÑIGO AZKONA

de bakarra balego jendeak zein aukeratuko lukeen galdetuta, ikerketa soziologikoek erakusten du telebistaren itzala txikituz doala Interneten onurarako (CIS, 2010: 2836).

Hartzailea, tamainaz eta jarreraz aldatuz joan da denbora laburrean. Youtubek bost urte baino ez dituela gogorazteak lagunduko digu ulertzen gauzak zein arin doazen. Erabiltzaileak telebista ikusteko noiz, non, zer eta zein aparailu bidez egingo duen aukeratu nahi du. Emisioen linealtasuna apurtu da eta orain edukiak bat-batean eta eskaerapeko ageri zaizkigu begien aurrean.

Aldaketaren tamainaz jabetzeko, gazteen eta bereziki 12 urtetik beherako neska-mutikoen jarrera eta telebista kontsumoa aztertu beharra baino ez dago. Sekulakoa da aldea. Iraultza digitala deitu izan zaio. Eta ez du ematen izen handiegia suertatuko zaionik egungo aldaketaren tamaina ikusita.

Gurea bezalako herri batentzat, aukeraz beterikoa ageri zaigu digitalizazioa. Izaera eta hizkuntza propioak elementu bereizgarriak dira merkatu gero eta homogeneoagoan, anonimotasunari gertuko edukiekin erantzun eta ikus-entzunezko industria malgua dira eskura ditugun tresna indartsuak. Horiek denak aktibatzeke unea da. Hamar urte itxoin beharrik gabe. ■

Aldaketaren tamainaz

jabetzeko, gazteen eta

bereziki 12 urtetik

beherako neska-mutikoen

jarrera eta telebista

kontsumoa aztertu

beharra baino ez dago.

Sekulakoa da aldea

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Bezera gatibuak alegia. Hala deitzen zituzten inongo konplexurik gabe beren bezeroei produktu baten eskusiba zutenek. Eta hizkuntzak ere kolaboratzen zuten horretan. Adibide bi datozkit gogora esandakoa indartzeko. Orain berrogei bat urte, ordenagailuei IBM deitzen genien. Inork ez zuen ordenagailu bat erosten, Philips, NCR edo eta Olivetti markako IBM bat baino. Eta koltxoia-matelasak Hegoaldean Flexak genituen, Pikolin Flexak. Orain ez dugu holakorik entzuten. Egun, kirolak heredatu du hori, bereziki edozein bertakotzeko indarra duen futbolak, euskararik gabean Fer-

Bezeria gatibua

nando Llorente eta gainerakoak euskaldun bilakatzeraino. Zaragozak berrikitan kontratatu duen Aguirre mexikar-

rrari, bere lehen partidu ofizialean “el vasco” esaten zioten telebistako esatariek, bera bezain vasco den Patxi Alonso bilbotarra buru. Futbol elkarteek zaleetan bezeria gatibuarena dute “kluba pertsonen gainetik dago” esaldi kontzeptual unibertsal zutabe. Zuzendariak, entrenatzaileak, jokalaria kritikatu eta lekutu daitezke, kluba inoiz ez, sakratua da betierekoa. Atzo, auzokoa etsai gaur gurean ikur. Eta gure gatibutasunean harro. Ezer gutxi gara eta galtza motxetan deus. Elastikoek bereizten gaituzte gatibuak. ■

Eider Alkorta

EHUKO IRAKASLEA

Abizenez Alkorta

Erregistro Zibilaren Lege proiektuak hedabideetan izan duen oihartzun eskasaz harrিতта nago. Amorrualdi batzuk kaleetan, baina ezin uka alfabetoaren inposizioak kaltetutako askok oso gutxi erreparatu diotela orain artean biztanlegoaren erdiak baino gehiagok jasandado diskriminazioari.

Lege proiektu honen aurretik, aitaren abizenak amaren aldean lehentasuna zuen. 1999. urtetik, adostasuna izanez gero, ez zegoen arazorik baina bere faltan, aitaren abizena lehenesten zuten kasu guztietan. Hau da, emakumeek seme-alabei euren abizena jartzeko eskubidea, eskubidea baina aitaren “borondatean” oinarritzen zen, eta berari esker egikarituko litzake balizko eskubide berdintasuna. Gizonaren/aitaren baimena behar “gure” abizena jartzeko. Niri sinestezina egiten zitzaidan oraindik horrelako neurri zaharkitu eta matxistak agerian izatea, baina beste behin pertsona bitxi bezala ikusi ninduten gai hau ateratzen nuen bakoitzean.

Are eta bitxiago sentitu naiz Erregistro Zibilaren lege proiektuaz kexu ikusi ditudanean, zenbaiten abizena desagertu daitekeenaren eskandaluaren aurrean. Orain bai da garrantzitsua abizenen kontua. Alfabetoaren irizpidea ez zait zuzena iruditzen eta



INIGO AZKONA

seguruenik Alemaniako txanponaren sistema izanen da justuena, baina inork ez al du pentsatu orain artean genero-zanpaketa baten aurrean geundela? Kontu honek agerian utzi du abizenen lehentasunak inolako garrantzirik ez zuela ziotenen bi ahokoa. Ez zen esanguratsua euren jartzen zuten heinean nahiz eta ama asko ez diren saiatu

ere egin euren abizena jartzen, ez eta aita konbentzitzen, eta hortaz nire erreibindikazioa, kolektiboa baino, pertsonala ez ote denaren dudak pizten hasi zaizkit.

Baina horrek ez nau atzera botatzen aitaren abizena lehenestea inposizio historikoa dela berresteko. 2010. urtean emakume eta gizonezkoen berdintasuna gainditu gabeko irakasgaia da, eta amek euren abizena ipini nahi izateak ez luke “feminista zoro” batzuen kontua izan beharko. Dena den, nire dudak ditut haurrari amaren abizena ipintzea adostu duten bikote gehienek oinarria berdintasun klabearen irakurri

ahal den, edota zenbaitzuk aukera “aurrera-koi” hori erabili duten bidez bi mandatu egiteko. Onartzen dut, Alkorta naiz, lege proiektuaren onuradun, baina alfabetoaren irizpide aldrebesak ez dezala ezerezean utzi abizenen lehentasunaren diskriminazioaren oinarria. ■

2010. urtean emakume eta
gizonezkoen berdintasuna gainditu
gabeko irakasgaia da, eta amek
euren abizena ipini nahi izateak
ez luke ‘feminista zoro’ batzuen
kontua izan beharko

TXANDAN

Amatiño



Eztabaida latza gero ETBren inguruan. Baina funtsean auzitan dagoena ez da telebista-eredua, ezta programazio-mota ere, albistegieta-ko informazio-tarte politikoa baino. Zentsura ote dagoen ala ez... kazetariak agindurik duten... ildo nagusiak bi alderdik elkarrekin sinatutako hitzarmenaren zerbitzupuan ote... Segurutzat gaitzugarri garrantzitsuak elkarri mokoka ari diren alderdientzat, baina inondik ere ez gero ETBren buruhausterik nagusia.

ETBren arazorik larriena maldan behera doa-

ETB, 23:30

kion audientzia-jaitiera geratu ezina da. Ondo dago, bai, albistegiez ardurtzea, eta inork ez du zalantzan jarriko lehen hamar minutuetan jokatzeko (omen) den lehia politikoa, baina ETB hori baino zertxobait gehiago da.

Euskal Telebistaren ikus-entzule gehienentzat, garrantzitsuena ez da kate bakoitzak egunean eman ohi duen ordu erdiko informazio politikoa, gainerako hogeita hiru ordu eta erdiak baino. Audientzia-gunea hor dago. Eta honetaz ez da eztabaida latzik sumatzen, ez haserrehotsik entzuten, ez ezer. ■

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Eraztun beltza

Gerora urtero egingo zuten bezala, uda hartan lehenengoz ekarri zuten Tinduf-eko kanpamentuetatik. Egun batez, hemengo haurrek bizikletaz txango bat egitea erabaki zuten, baina ez zitzaien bururatu ere egin neskatalak ibiltzen jakingo ote zuen. Alabaina, hark ez zuen halakorik aipatu, eta denak garajetik irten zirelarik, berak atea itxi, eta puska batean geratu zen barnean. Noizbait ere, dingili-dongolo irten zen, hainbat urratu gorputzean, baina bizikleta gainean... Lagunak egun hartan jabetu ziren sahararraren izaera isil bezain irmoaz.


Geroa gurea da izenburua du Ibarretxeren memoria liburuak, baina ez dut uste pasadizo hau jasoa izango duenik, nahiz eta berak kontatua izan. Egun batez, bi idazle espainiar eta EAJko parlamentari batekin agertu gintzaizkion, Sahararako bibliobus bat –ibilgailua– eskatzeko. Idazleak etsiturik zetozen hainbat aldaba jo ostean –Kultura eta Atzerri Ministerioak, Cervantes Institutua...–, eta, ordubeteko solasaldi mamitsua amaitutakoan, harriturik irten ziren gaztelaniazko liburuak garraiatuko zituen bibliobusa zeinek eta Jaurlaritzak bideratuko zuelakoan.

Hori guztia Marokoko Gobernuak Aaiunen erakutsitako doilorkeriak ekarri dit gogora, eta bide batez Mohamed Xukri zena oroitarazi. Idazle marokorra *Mila abots eta bat gehiago* elkarriketa liburuan honela mintzo zen: “Rif-en gosete ikaragarri batek joak bizi ginen: jende asko hil zen. Nire bizilagun batzuk, jatekorik ezin lortu, eta etxean inmolatu ziren, ateak eta leihoak barne-tik hesituz. Bakarren batek noizbait ere sartzea lortu zuenerako, hilik zeuden. Gure aitak nire anaia hil zuen, gau eta egun negarrez aritzen zelako, hari emateko ezer eduki ez eta, nahigabeturik, amorrazio aldi batean lepotik heldu zion... Ongi heldu ere, bi egunen buruan hil baitzen. Harrezkero gorrotatu egin nuen aita”.



DANI BLANCO

Amin Maalouf idazleak esan berri du mundu arabiarrek, bizi duen egoera nahasgarriaren erruz, gaur egun ez duela zer eskainirik. Ulertzen dut, baina ez nago ados. Eta horretaz jabetzeko Mohamed Xukriren obra irakurtzea baino ez dugu



irudia:
Antton Olariaga

Iruditzen baitzait Marokoko Gobernuak, Espainiaren utzikeria lagun eta Saharako aberastasunak helburu, nolabait ere inmolatu nahi duela bertako populazioa.

Amin Maalouf idazleak esan berri du mundu arabiarrek, bizi duen egoera nahasgarriaren erruz, gaur egun ez duela zer eskainirik. Ulertzen dut –nik neuk ere behin baino gehiagotan izan dut sentipen horixe gurearekiko–, baina ez nago ados. Eta horretaz jabetzeko Mohamed Xukriren obra irakurtzea baino ez dugu. Giro soziopolitiko negargarria gorabehera, lehenengoz haren *Ogi butsa* euskaraz irakurri ahal izango dugu, baina ez edonola, Arantzazu Royok zuzenean arabieratik euskarara itzuli baitigu Igela argitaletxean (*Erlea* aldizkariaren azken alean ere agertu zaigu idazleari buruzko hainbat kontu Iturralde eta Elustondoren bitartez). Autobiografikotik asko duen liburua Marokon zentsuratua izan zen arren, Xukrik zioen herrialde horretan Algerian, Iraken edo Egipton baino askatasun handiagoa zegoela –eta integritasmoa kontrolatuagoa, bestela bera aspal-dian hila baitzuten–; eta liburua Juan Goytisoloren aitzinsolasarekin argitaratu zen gaztelaniaz, eta nortzuek eta Tahar Ben Jelloun-ek eta Paul Bowles-ek itzuli zuten frantsesera eta ingelesera.

Gogoan dut Ibarretxe lehendakari ohiak bere eraztun beltza erakutsi zigula, eta nola esan zigun neskatala sahararren oparia zela, eta nazioarteko bileretan oroitarazi egiten ziola, gaia edozein zela ere, oraina bera ukatua zaion Saharako auzia hizpidera ekarri beharra (Gonzalezi buruzkoak esan zituenak liburuan egongo al dira?). Eta, halaber, ezin gogotik kendu laster oraingo Jaurlaritzarekin egin beharreko bilera, izan ere bibliobus ttikiago bat bidaltzeko asmoa baitugu. Eta neure buruari galdera egiten diot, ea nork hartuko gaituen, ea eraztun beltzaren aztarrenik sumatuko ote dugun, ea geroa norena den. ■



Edukiz jantziko zaituen aldizkaria

Oparitu **argia** harpidetza

independentzia astero ikusten da

Literatura

Orain bai, liburu digitalak eztanda egingo du

Bi gertakarik asko aldatu dituzte gauzak liburu digitalaren nazioarteko sektorean. Bat: idazle esanguratsu zenbaitek ohiko argitaletxeak bazterrean utzi dituztela, euren liburuen edizio digitalak Amazonen bidez saltzeko, Interneteko liburu-dendak egile-eskubideengatik portzentaje handiagoa eskaini dielako. Eta bi: liburu digitalen kopia “piratak” asko ugaritu direla Interneten azken urtean. Liburuaren industriari errekonbertsio garaia iritsi zaio, lehenago diskoenari eta filmenari gertatu zitzaien bezalatsu.

GORKA BEREZIARTUA


2007AREN AMAIERAN hasi zen tarranta ozenago bihurtzen. Amazonek Kindle irakurgailua salgai jarri berria zuen, “liburuaren iPod” hedabide askoren esanetan. Bazirudien paperarenak egin zuela. Bazirudien denbora gutxian narratiba, saiakera, poesia eta are, baita egunkaria ere, folio baten tamainako gaxet digitalean leitzekoak ginela. Bazirudien horrek liburuaren kontzeptua bera aldatuko zuela. Bazirudien... baina ez. Edo ez erabat. Ez espero bezala. Liburuaren industria ez da hainbeste aldatu azken urteotan. Baina, era berean —eta gure buruarekin kontraesanean gaudela eman badezake ere— asko aldatu da. Bukatzear dugun 2010a izan liteke norabide aldaketa markatuko duena.

Ze, gainontzean, hiru urteotan garrantzi handirik ez duten gauza asko gertatu dira: teknologiarekin edo edizioarekin harremana



duen enpresa oro posizioa hartzen hasi da liburu elektronikoaren sektorean, bipil batzuk, musuak lotsaz gorri eta sineste handirik gabe bes-tetzuk. Zenbaezinak dira merkaturatu diren *e-reader* modeloak, bakoitzak formatu diferenteak irakurtzen ditu eta horietako bat nabarmen nagusitu den arte, liburu digitalak denbora asko galdu du alferrik, nobela baten dokumentu digitalak atzetik eraman behar duen luzapena “.azw” izan behar ote duen ala “.lit” behar duen erabaki ezinda.

Bi nagusitu dira momentuz: EPUB estandar irekia eta Adobe etxearen PDF ezaguna. Aurrenekoaren abantaila, moldagarritasuna: pantailan letrak handiago ikusi nahi baditugu, irakurgailuak testua egoitu egiten du, berriz maketatuko balu bezala, segundo gutxian; PDFak berriz, alde dauka oso erabilia dela, eta Interneten libu-



ru askok zirkulatzen dutela aspaldidanik formatu horretan.

Digitalaren mosketariak

Baina, esan dugu, horiek garrantzi handirik gabeko kontuak dira. Benetan inportantea ez baita azpiegitura teknologikoa, liburuak eta idazleak baizik. Orain arte kontuak honela funtzionatzen zuen nazioarteko argitaletxeen eta sona handiko idazleen artean: papereko liburu bakoitzeko idazleak salmenta prezioa-

Philip Roth goiko argazkian. Beste hainbat idazle ezagunek bezala, portzentaje handiagoa eskatu du bere e-liburuen salmentaren truke.

Liburu fisikoak baditu kostu batzuk: papera, banaketa, biltegia... Digitalak ez. Eta idazleei portzentaje bera ordainduta, argitaletxearen irabazi-marjina puzten da... Idazleak "kito!" esaten duen arte, noski

ren %25 eskuratzen zuen. Eta editorialek, digitalera jauzi egitean, antzeko tratua eskaini zieten e-liburu bakoitzaren salmentagatik. 2010ean ordea, "bat denontzat, denak baten-tzat!" esan, eta zenbait idazlek buruz gain pasa dituzte argitaletxeak, euren liburuen edizio digitalak zuzenean Amazoni saltzeko. Arrazoiak? Interneteko liburu dendak %25 hori gainditzen duten *royalty*ak eskaintzen dizkiela. Salmenta prezioaren erdia poltsiko-ratzea posible dela uste dute idazleok. Eta ez dira edozein: Orhan Pamuk, Salman Rushdie, Phillip Roth eta Martin Amis daude tartean.

Galdera inportantea jarri diete argitaletxe tradizionalak mahai gainean: zergatik ordaintzen diguzue e-liburuarengatik papereko edizioarengatik pagatzen duzuen portzentaje bera? Ze, liburu fisikoak baditu kostu batzuk,



Durangoko Azoka 2010


Argia astekariaren eta Luditoysen katalogo berria!

*Bisita gaitzazu Goienkale 1,2 eta 3 standetan



Zumeta ren artelana

ARGIAren 90. urteurrenerako Jose Luis Zumetak egindako artelana.



paperak dirua balio du, banaketak ere bai eta beste hainbeste liburuak biltegian edukitzeak... Baina problema horiek fini dira aro digitalean. Eta kostu horiek zerora hurbiltzen badira, idazleari berdin pagatuta argitaletxearen irabazi-marjina puzten da... idazleak “kito!” esaten ez badu, noski. Eta esan dute.

Liburuetan ere *copyright*

Baina itxaron, orain arte liburuak erosteaz aritu baikara. Eta produktu kulturalaz hitz egiten badugu, Internetez, digitalizazioaz, premisa hori bera ere kolokan jarri behar da ezinbestean. Diskoekin ikusi dugu: grabatutako musika doakotasunerantz abiatu da. Liburu numerikoak nagusitzen diren neurrian ere, zaila da bestelako panoramarik imajinatzea. Edozein artxi-bio digital kopia baitaiteke erraztasun handiz eta aski da pertsona bakarrak ordaintzea liburu, disko, film edo dena delakoarengatik eta gero Interneten kargatzea, beste chunka, milaka pertsonak sarean arrantzatu eta doan eskura dezaten.

Papereko liburuaren negozio-eredua digitalera bere horretan eraman nahi dutenak, hori saihesteko, kontrol-teknologiak baliatzen ari

Negozio-eredu tradizionala digitalera bere horretan eraman nahi dutenak kontrol-teknologiak erabiltzen ari dira. Egoera absurdu samarrak sor ditzake horrek, liburu bat lagun bati ezin uztea, adibidez

dira. Helburua, kopia libreari ahalik eta traba gehien jartzea da. Baina egoera absurdu samarrak eragin ditzake. Besteak beste, liburu digitalarekin ezin egin izatea papereko liburu batekin normal-normalak diren ekintzak: guk erositako liburu bat lagun bati uztea, kasu. Edo liburutegi publiko batetik obra bat hartu eta etxera eramatea. Izan ere, bai baterako eta bai besterako, norberaren irakurgailura kopiatu behar da liburu. Eta kultur industria tradizionalak joera du “kopia” hitza “bekatu” berbarekin lotzeko.

Edonola, zaila baita itsasoan presa egitea, liburuaren zirkulazio librearen arora heldu garelako ematen du. 2009ko datu batek baieztatzen du. Espainiako Pirateriaren Behatokiak (sic) egin zuen publiko: iaz sarean zebiltzan liburu digitalen %19,7 “pirateatutako” edukiak ziren. Hori izan daiteke liburuaren industriarentzat, diskoenarentzat Napster izan zena; negozio-eredua aldatzen hasteko garaia dela erakusten duen inflexio-puntua.

Irakurleentzat zer esan nahi duen? Agian garaia dela irakurgailu bat eskuratzeko. Alexandriako liburutegia barregarri uzteko moduko eskaintza izango dugu Interneten. ■

Gu bertan izango gara, eta Zu?

Nobedade hauez gain,

zozketak, harpideentzat prezio bereziak, opariak, egileen sinadurak standean, ...

Eta behar duzun guztia azaltzeko **Argia** eta **Luditoyseko** lagunak

Bazen behin...

Mundu mailako jolas ospetsua orain euskaraz!

bizitza

Jabetu giza gorputzaren sekretu guztiez



MIHILUZE BERRITUA

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko



Telebistako programa arrakastatsuen edizio berria!

Noruntz eta nola iritsi? Zein da bidea?

CAMINOS

3D estrategia jolasa



Luditoy

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoy.com

Musika


Kantuz hartuko haugu, hitaz oroitzean

Kantuz sortu zen, eta kantuz zen bizi. Kantuz igortzen zituen bere penak ihesi. Kantuz irabazi zuen izan zuenetik asko. Kantuz aritu zitzaizkion bere hautsak zabaltzean. Eta belaunaldi berriek ere, beste era batera ezin eta, kantuz oroitzen dute Mikel Laboa, haren abestiak moldatuz.

LANDER MUÑAGORRI

MIKEL LABOAK ez zuen kanta amaitutako zerbait bezala ulertzen. Denborarekin ondu edo txartu daitekeen zerbait zela uste zuen, interpretazio ugari jaso zezakeen zerbait. Horregatik, bere ustez zaharkituta geratutako kanta eguneratu egin zituen, unean uneko eraginak txertatuz. Abesti berriak sortzeko garaian ere ez zuen kanta amaitutako gai bezala ulertzen, urteak eman baitzitzaizkeen ideia batekin bueltaka. Abestia *standby* egoeran uzten zuen, handik denbora puska batera berriro hartu eta taxutzen jarraitzeko. Kanta bakoitzak argitaratu aurretik bere bizia egin behar zuela zioen. Behin ezagutze-ramandakoan, abestia jaio egiten zen, sekula ez hiltzeko.

Musikaria hil zen, baina bere obrak bizirik jarraitzen du. “Mikelen abesti askok ahozko transmisioa izan dute, eta horren ondorioz bizirik iraun dute, eta nire ustez iraungo dute”, dio Eneko Aranzasti musikari eta Bidehuts-eko kideak. Oroimen kolektiboan txertatuta dago Mikel Laboa, baina bere obra oraindik amaitu gabe dago. Denborarekin ontzen ari da, hamaika interpretazio egin baitzaizkio, baita egingo ere, hamaika artistaren eskutik. Hala ere, musikari ezagun askori egin zaizkio bertsioak, eta Mikel Laboak ere berdina egin zuen bere garaian Atauhalpa Yupanqui, Xabier Lete eta beste hainbatekin. Baina donostiarraren kasua ezberdina da, oso hedatuta dagoen joera baita haren bertsioak egitea. Arrazoia,



Laboaren musika “herri-kanta bilakatu dela” Julen Azpitarte kazetariaren ustez.

Belaunaldien arteko zubi

Herri-kanta bihurtuta ere, “tradizioan ondo sustraitutako abangoardian” dagoen artista da oraindik Laboa, Azpitartek dioenez. Hori lortzeko, belaunaldi berrieke eta musikari gazteekin etengabeko hartu-emanak eduki zuen. Ez da harritzekoa beraz, garaian garai-ko hainbat taldeekin kolaboratu izana. Fermin Muguruza eta Dut-ekin *Gazteluak* kantan ahotsa sartu zuen, Kortatu taldearen *Ebun ginen*-en, Naizroxa-ren *Igharaturic* azken diskoan, edota Oreka TX-en *Nomadak* TX lanean parte hartu zuen, besteak beste.

Hartu-eman horiek direla eta, bertsio eta omenaldi asko egin dizkiote unean uneko tal-

deek. “Bere estiloari muzin egin gabe Laboa beti eboluzionatzen ari zen, eta beti eguneratuta egotea ahalbidetzen zion horrek. Sentipen hori belaunaldi berriengan pizten zen”, dio Ibon Rodriguez Eten taldeko kideak. Baina “Mikel eredu bezala hartu nahi bada, iraultzen jarraitu behar da, bere lana mitifikatu eta petrifikatu gabe”, zehaztu du. 1990ean argitaratutako *Txerokee* diskoan iraunketa hori ikusi daiteke. Talde esanguratsu askok Laboaren lana rockera ekarri zuten. Hogei urte beranduago antzekoa gertatu da, eta belau-naldi berriek Laboaren lana iraultzen jarraitzen dute, hala nola *Txinaurriak* lanean (ikusi hurrengo orriko koadroa).

Unibertsaltasuna

Atzerriko artistengana ere iritsi zen Laboa: “Esker oneko keinuak izan dira gehienbat. Euskal Herriaren egoera politikoa, euskara eta beste hainbat ñabardura sartzen dira tartean, baita Laboa ikonotzat hartzea ere”, dio Rodriguezek. Rim Banna abeslari palestinarrek *Gure hitzak* kantaren bertsio moldatu berri batean parte hartu du Arramazka taldearekin batera; Toledoko (Espainia) Proyecto Swing taldeak jazz eta swing estiloan jotzen du *Txoria txori*; eta kanta horixe bera abestu zuen Joan Baezek 1988an Bilbon eskaini zuen kontzertuan, Pablo Milanese Euskal Herriko emanaldietan egin izan duen bezala; Bartzelonako Cor EuskalHiria abesbatzak *Baga biga biga* kantatzen du, eta Nacho Vegas-ek ere abesti huraxe jo zuen 2009an Bilboko Kafe Antzokian.

Izaera unibertsal hori lortzeko, Steve Reich-ek zioena hartzen du argudiotzat Azpitartek. “Zenbat eta lokalagoa, unibertsalagoa. Egonezin handiko musikaria zen Laboa, eta estilo asko uztartzen zituen. Uztarketa hori baina, jario propioa erdiesteko erabili zuen. Laboa entzutean ez duzu estiloen fusioan pentsatzen,

“Mikel eredu bezala hartu nahi bada, iraultzen jarraitu behar da, bere lana mitifikatu eta petrifikatu gabe”

IBON RODRIGUEZ

aparteko musikarian pentsatzen duzu, bere jarioari ondo heldu, baina era berean horrekin konformatu ez zen musikarian. Horregatik, izaera unibertsala lortu zuela esango nuke”.

Ez musikan bakarrik

Eta bestelako diziplinetan ere egin zaizkio berrikusketak Laboari. Iñaki Salvador pianistak dioenez, Laboak inspirazioa arte diziplina ugaritan bilatzen zuelako gertatzen da hori. “Haren lanera inguratu garen margolari, eskultore, dantzari edo musikariok Laboaren obraren arkitektura konplexuaren ‘deseraikitze’ apala besterik ez dugu egin”.

Esate baterako, Manuela Carretta dantza-ri italiarrak *Haika Mutil* kantarekin dantza flamenkoa sortu du; Zorongo taldeak ere flamenkoa dantzatzen du Laboaren musikarekin, baita Amilotx dantza taldeak edo Jon Ugarrizak ere. Koldobika Jauregi eskultoreak Laboa eta Altxürüküko artzainen basa aireei erakusketa eskaini zien Donostiako Ekain galerian; Juan Gorriti artistak ere bi eskultura egiteko oinarri hartu du kantaria, eta zer esanik ez Jose Luis Zumeta margolariak.

Hainbat lehiaketa ere antolatu dira Mikel Laboa gaitzat hartuz, hala nola, Usurbilen egin zen eskultura lehiaketa eta EHUK antolatu duen idazketa, irudi eta musika sariketa. Eta bertsolaritzak ere omen egin dio behin baino gehiagotan. 2008ko Bizkaiko Txapelketan, Laboa hil berrian, Igor Elortzak kartzelako bertsioak *Izarren hantse*ren doinuarekin bota zituen; Maialen Lujanbiok ere *Martxa baten lehen notak* doinuarekin hainbat bertso abestu zituen 2009ko Euskal Herriko Txapelketa Nagusian, tartean txapela jantzi osteko agurra.

Mitoaren itzala

Laboa aipatzen denean *Txoria txori*, *Baga biga biga*, *Oi Pello Pello*, *Izarren hantse*... bezalakoak




Bi omenezko lan, Laboaren heriotzaren bigarren urteurrenean

“ETORKIZUNA gazteen esku dago, eta nik egindakoak zerbait esaten badie, edo zerbaiterako baliagarri bazaie, ba pozgarria da, dudarik gabe”. Hala zioen Mikel Laboak 2006an *Entzun!* aldizkariari eskainitako elkarrizketan. Baliagarri izan zaie ondorengoei, ezbaierik gabe, eta horren adierazgarri dira aurtengo kaleratutako bi disko.

Lilurarik ez, Iñaki Salvador

1985ean argitaratu zuen 6 diskotik azken lanera arte Iñaki Salvador alboan izan zuen Mikel Laboak. “Sortze prozesuan aske uzten gintuen, baina berak nahi zuen norabidean. Musikari gutxi lortzen dute oreka hori” dio Salvadorrek. Orain Laboaren gidaritzarik gabe aritu da, eta *Lilurarik ez* bere azken lanean jazzera ekarri du, 1992an *Zilbor bestea* diskoan egin zuen bezala. Disko hau omenezko lana dela dio, “berarekin berriz jotzea bezala izan da, baina bera gabe”.

Jazza eta kanta herrikoiak uztartzeak on egiten die bi esparruei, Salvadorren ustez. “Gehiengoarentzat laguntza gisakoa da era honetako fusioak egitea, doinu herrikoiak nahasten baitira entzuteko zailagoak diren elementuekin”. Horrelako esperientziak ez dira berriak, hala ere. “Jazz musikariak historikoki ‘standard’-ak jo dituzte, hau da, abiapuntutzat kanta bat hartu, eta horren gainean inprobisatu dute. Eta nik ere beste hainbeste egin dut. Mikelen kantak joz, inpultso horri jarraitu besterik ez baitut egiten”.



Txinaurriak, Hainbaten artean

“Anarik denbora zeraman *Antzinako bibotz* zuzenean jotzen, eta Lisabök *Xoriek 17* diskoan *Orduan* abestian jardun zuen. Garai horretan hasi ginen ideiarekin bueltara”, dio Asier Zulueta Bidehutseko kideak *Txinaurriak* diskoaren genesiari buruz, “baina Laboa zendu zelarik, dena utzi genuen harik eta familiak,

jakitun, aurrera egiteko esan zigun arte”. Donostiako Antigua auzoan egin zitzaion omenaldirekin gauzatzen hasi zen bilduma. Azkenerako hemeretzi taldek osatu dute *Txinaurriak* lana, bi LP eta bi CDk osatutakoa. Besteak beste, Ruper Ordorika, Audience, Mursego, Anari, Berri Txarrak, Xabier Montoia, Willis Drummond, Zura, Gora Japon edo Ama Say-k hartu dute parte.

“Mikelek eta bere inguruan zebiltzan guztiek emandakoa eskertzeko aukera bezala planteatu genuen diskoa”, dio Karlos Osinaga Bidehutseko kide eta musikariak. “Hasieran irudi eta testuak egiteko izen batzuk etorri zitzaizkigun burura: Zumeta, Atxaga, Sarrionandia... baina kantekin bezala, dena geuk egitea erabaki genuen”. Ramon M. Zabalegi arduratu da irudiaz, eta Martxel Mariskal liburuxkako testuez. “*Txinaurriak* diskoan badira Laboaren oinordeko izan daitezkeen hainbat artista: musikari ipurterreak, etengabeko bilaketan murgilduta daudenak, ahots propioa izan nahi dutenak, idazteko grina dutenak...”, dio Julen Azpitartek. Maisuari omenaldia egiteko, diskoa abenduaren 1ean argitaratu da, Mikel Laboa zendu zen data berean.

etortzen zaizkio burura entzuleari. Horren kausa izan daiteke, batetik, haren lanaren ezezagutza; bestetik, Laboaren figura mitifikatu izana. “Mitoak itzal handiegia egiten dio Laboa musikariari, eta askotan irudi horrekin geratzen gara, alde musikala apur bat baztertuz. Iruditzen zait ez dugula bere musika osotasunean baloratzen”, dio Julen Azpitartek.

Zergatik? “Obraren berri ez dugulako; kanta mitikoekin gelditzen garelako; ez garelako nahikoa murgildu haren musikan; abangoardia ere badelako eta horrek askotan entzulea kikiltzen duelako... Azken finean, Laboaren obrak entzuleari esfortzua eskatzen diolako, eta musikak askorentzat puntu hedonista hori duelako: parrandetarako, afa-

rietan abesteko...”. Balizko posible horiek guztiak planteatzen ditu Azpitartek betiko kanten errepikapena ulertu nahian. Kanta horiek, gainera, ez dira ezagunenak, “ezagutzen diren bakarrak dira”, Rodriguezen ustez. Hala ere, garbi dago aipatutako abesti horietatik asko euskal identitatearen parte izatea ere lortu dutela, eta horregatik aukeratu izan dituztela bertsioak egiteko. Edonola ere, Iñaki Salvadorrek aurreikusten du denborarekin justizia egingo dela, “eta jakituria gehiagorekin baloratuko da Laboak sortutakoaren osotasuna”.

Edonola, omenaldirik handiena gauzatuta dago, haren kantak dagoeneko herriarenak bilakatu baitira. ■

ZURRE

**EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA
DURANGOKO AZOKAN IZANGO DA**

BISITA GAITZAZU GURE STANDETAN:

Artekaleko 13-16 zenbakietan • Habe multimedia: Artekaleko 97-98 zenbakietan

ARGI TALPE NAK



Orain
Eusko Jaurlaritzaren
argitalpenak on line ere
eros ditzakezu
[www.euskadi.net/
argitalpenak](http://www.euskadi.net/argitalpenak)

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

Ihesi

Testua eta argazkiak:

ALLANDE SOKARROS

Euskal Herria ezagutuz:
Barkoxe (Zuberoa)



Laborari-poeten lurretan

Pierra Topet Etxahun, Beñat Mardo, Pierre Xerbero Lohidoi, Alexis Etxekopar Attuli: Zuberoako euskal kulturaren zerbitzari eta hazle hauek Barkoxekoak ziren. Goazen, bada, laborari-poeten urratsetan, herri polit eta maitagarri honen ezagutza egitera. Horretarako aukera egokien-egokiena da egundoko bista ederraz oparituko gaituen eta Barkoxe herriari 609 metroko altueraz zaintzen dion Ahargo mendixkarako itzulua egitea.



Barkoxeko Ahargo mendixkaren gailurretik ikusmen oso zabala eta ederra dago. Beheko aldean, hurbilenean, Barkoxe herria da.

AHARGORAKO IBILBIDEA Barkoxeko arrabote plazatik (210 m) hastea da aukerarik hoberena. Plaza horretan bertan ere kokatuak dira eliza eta Herriko Etxea. Txango hau egitean ezin daiteke galdu, zeren eta, burutik buru tinda horiekin seinalatuta baitago. *Xiberoko xendak* deitutako gida-liburuaren 34 eta 35. orrialdeetan ere honen berri emana da, gida hori Zuberoako euskaraz idatzita arki daitekeelarik.

Arrabotearen atzealdetik 30 metrora, Eskiularako bidea hartu bezain laster, ezker aldera Aranbel-

tza auzorako bide txikia hartuko dugu, 'Ahargo 2' seinalea ere hortxe ikusiko dugularik. Bide txiki honetan 300 edo 400 metro ibili ondoren, etxe baten pare-parean, ezkerrean abiatzen den lurbidea hartuko dugu. Hasiera honetatik bertatik, Ahargorako ibilbide honen lilurak harrapatuko gaitu, oso polita baita gaztainondo, haritz eta hurritzondoan artean poliki-poliki gorantz eramango gaituen xenda. Uso ehizketarako gunea izan zelako aztarnak ere antzemango ditugu, ehiztariak hor bertan utzitako zabor batzuekin

batera. Azken urteotan, baina, uso tirokatzailerik ez da topatzen bazter hauetan... eta nire aldetik behintzat ez diet dolu egingo!

Xendako harrien gainean edo zuhaitzetan emanak diren hori koloreko seinaleei arretaz begiratu behar zaie, batzuetan ez baitira ondo ageri, hostoen pean ezkutatuta daudelako edo ezabatzen hasiak direlako. Une batean, lurbidea oiha-naren ertzera helduko da eta honi jarraituko dio denbora batean, Ahargoren hego-ekialdeko bizkar luzea dugularik eskuinaldean ber-



Barkoxeko laborari etxe dotorea. Urrunean, Ahüimendi (ezkerrean) eta Arlatze (eskuinean).

tan. Zuhaitzen artean, Barkoxeko eliza inguruko eta Bürgia auzoko etxeak ikusiko ditugu, baita etxe multzo nagusi horietatik aldenduak diren baserri ugari, Gaztelondokoak, Maidalenakoak eta Txapelakoak, esaterako. Zuberoan, eliza ingurutik edo karrika nagusitik aldenduak diren auzoei etxauak deitzen diegu.

Ikusmen oso zabaleko gailurra

Une batean, ibilbidearen seinaleei arretaz begiratu beharraren zergatia nabaritutako zaigu, orain arte

jarraitu dugun orga-bideari utziko baitiugu, eskuin aldera, Ahargoren mazelara, abiatzen den xenda bat hartzeko. Leku honetan 'Ahargo 4' pankartatxoak bada. Xenda honek ordoki lauan erabat iparraldera eramane gaitu, oihanaren gainean izanda, dagoeneko bista miresgarria gozatuko dugularik. Barkoxeko eliza inguruko karrika eta Bürgia auzoaz gain, aipatutako etxauak begi-bazka izango ditugu. Eskiulako Mandelü eta Kanbillu mendikez gain, Arbailletako mendialde miresgarria eta Santa Grazi zein

Larraine eta Nafarroako gailur asko eta asko ezagutuko ditugu: Lakora, Binbaleta, Kartxila, Otso-gorrigaine, Gaztarrigaine, Orhi, Bizkarze, besteak beste. Ahüimendi eta bere mendi lerroa ere ageri-agerian dauzkagu, honetan agur berezia egingo diogularik Euskal Herriaren gailur Hiru Erregeen Mahaia mendiari.

Ote eta iratze maldan eginiko xenda oso polit hau ordoki lauan egonda, bazter zabal hauek mireste-ko aukera hoberenak dauzkagu. Une batean, haatik, aska bat pasa



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com



Lojagaraiko bordak, galdutako gizarte baten lekuko isilak.

eta berehalaxe, maldaren gora egin beharko dugu, soro bat inguratzen duen burdina-hesiari jarraituz. Hegi bizkarrera heldu ondoan, eskuinera joko dugu, hortxe baita Ahargo gailurra (609 m). Nolanahi ere, honi huts egiterik ez da, atanda-harria (mapa-harria) baitago hantxe. Erabat egokia da atanda-harri hau hemen egotea, egundoko ikusmen zabalaz oparitzen gaituelako gailur xumeak. Honetaz ohartzeko, nahikoa da jakitea ekialdean Bigorako Egurdimenditik mendebaldean Lapurdiko Urtsumendira ematen duela bistak, tartean dauden Bigorra, Biarno, Zuberoa, Nafarroa, Baxenabarre eta Lapurdiko mendi gehien-gehienak ezagutuko ditugularik. Ahargo gainetik beti, burdinazko gurutze bat jarrita dagoen aldetik, Biarno eta Landetako lautadak ere ikusiko ditugu.

Gizarte galdu baten lekukoak

Eraitsierari ekiteko, zati batean behintzat, ibilbide seinalatua saihe-

teko aholkua egingo nuke. Ezen, gailurretik hego-mendebaldera jotzen duen hegiaren bizkarretik joatea hobetsiko nuke. Ibilbide seinaladuna, mendebaldeko mazelako xenda batean emana da. Hegitik ibiltzea gozagarriagoa dela deritzot, nahiz eta une batean seko behera

Ekialdean Bigorako Egurdimenditik mendebaldean Lapurdiko Urtsumendira ematen du bistak, tartean dauden Bigorra, Biarno, Zuberoa, Nafarroa, Baxenabarre eta Lapurdiko mendi gehienak ezagutuko ditugularik

egin beharko den, Lojagaraiko bordetara eraistearren. Xenda seinaladunarekin, dena den, leku honetan bertan egingo dugu berriro topo. Gaztainondo eta hurritzondoan pean harrapatuak dauden hiru borda eder hauek, gaur egun galduta dagoen laborari gizarte baten lekuko isilak daude. Oroitzapen

saminez bi bordaren artean aurrera egingo dugu, gaztainondo baso batean jendeak eginiko orga-bide batean behera.

Laster batean, Miñaborda, Lojagaraia eta Sagardoihegia etxaldeptara daraman bide txikira iritsiko gara eta mendebalde norabidean zuzen joko dugu, beti ere seinale horiei jarraituz. Kilometro bat eskas egin ondoren, Maule eta Barkoxe arteko bide handiagora iritsiko gara, Maidalena mendi polita bisabisean dugula. Gune honi Maysonaveko lepoa (390 m) izen bitxia eman diote. Nahiz eta Biarnotik aski hurbil garen, oraindik Euskal Herrian gaude, baina hala ere, biarnesezko izena darama lepo honek. Biarnesez, *Maysonave*-k “etxe berria” esan nahi du. Leku izendatze bitxi hori gogoan edukita, errepide horretara heldurik ezkererantz joko dugu, hots, Barkoxe aldera. Bide honetan, haatik, 50 metro inguru baino ez dugu egingo, eskuin aldera bide harrizta-



Bürgia auzoan da Xilo ostatu-jatetxe ospetsua.

tu txikia hartuko baitugu jarraian, 'Ahargo 8' seinaleak gomendatuko digun bezala.

Paradisura eraistea...

Etxe bilakarazitako borda igaro ondoren, bide harriztatu hau amaituko zaigu Larrasketa laborari etxe guztiz dotorean (310 m). Egoiliarrik gabe izan arren, Larrasketak jabeak baditu eta horiek oso ederki zaharberritu dute, 1751. urtean eraikitako etxe batek merezi duen legez. Larrasketari begirunez agur eginik, behera sartzeari eutsiko diogu, xenda belartsu miresgarrian ibilita. Gaztainondo eta haritz zahar bezain ederren gerizapetik irten ondoren bazkaleku batean eraisten den lurbide batek egingo digu harrera. Hari, Ürrütia etxalde handiaren alboan pasatu ondoren, gorosti eta hurritzondo xenda xarmagarri batek hartuko dio lekukoa. Bidezidor polit hori Pikotxeta etxaldearen inguruan bukatzen da (220 m), bide txiki batera iristean. Etxe izen horrek gogorarazi digu

Pikotxet apaiz zena euskaltzale handia izan zela eta Zuberoako euskaraz idatzitako altxorrak utzi dizkigula.

Bide txiki horretara heltzean ezker aldera hartuko dugu. Eskuin aldera hartu bagenu, paradisura iritsiko ginatkeen alta... edo, zehatzago esanda, Paradis izeneko etxera. Paradis(uar)i bizkarra emanda beraz, Maidalenako etxauetara eta hemendik Atharratzera ere darman bidearekin topo egingo dugu. Hementxe ezkererantz joko dugu; eskuin aldera joanda topatuko genituzke Maltako baseliza eta Txapela auzoko eskola ohia. Nahiz eta ibilgailuentzako bidea izan, goxo izango zaigu honetan ibiltzea, hainbat laborari etxeri agur eginda. Montorirako bidearen sardan, zuzen jarraituko dugu Bürgia izeneko auzora heltzeko gisan. Mauletik datorren bidearekin topo egin eta laster, Euskal Herri orotan eta askoz urrunago ere ospetsua den Xilo ostatu-jatetxearen aitzinean pasatuko gara. Diru apurtxo bat kostako bazaigu



Barkoxeko arrabotea eta eliza.

ere, balio du hemen otordu baterako gelditzea.

Lexardoi batetik bestera...

Anartean, Xilo enean pasatu eta berehala, ezkerrean sartzen den bide txikiagoan amaituko dugu lauzpabost ordu iraun digun gure txango hau. Plaza txiki batera heldurik, harategia ikusiko dugu. Hemengo nagusia da pastoral errejent apartekoa den Jean-Fabien Lexardoi eta lan horretan trebea izateaz gain, odolki, lukainka eta bestelako txerriki hautak egiteaz guztiz ezaguna da. Jean-Fabien Lexardoi agurturik ala ez, hortxe bertan, bide handiagoan ezker aldera hartu eta berehala, Barkoxeko arrabote plazara helduko gara. Han, trago bat hartzeko ordu etorririk, beste Lexardoi batek —hau Sylvain izenekoa— udaletxearen pare-parean atxikitzen duen taberna xumea guztiz gomendagarria da. Hango nagusi Germain Lexardoi zenak ere asko bazekien Barkoxeko laborari-poeten kontura. ■

jatetxea
Xarma

Tolosa etorbidea, 123 / Donostia

© 943 317 162


www.xarmajatetxea.com



Liburuak

KRITIKA

Bi anai.
Bernardo Atxaga.
Erein, 1985. 11,25 euro.



Hemeroteka
Aritz Galarraga

Obaba non den

JAKIN NAHI DUENAK *Obabakoak* ipuin bildumara joko du, itxura batean, sudurrari jarraiki. Eta ez da biderik luzeena, noski, nahiz eta Obaba, aipatu lanean baino lehen, agertu izan den beste zenbait kontakizunetan. *Obabakoak* bera osatu aurretik bertako hainbat ipuin irakurri ahal izan ziren solte, han-hemenka. Bilduma irekitzen duen *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* esaterako, 1982an –hortxe agertzen da lehen aldiz Obaba–. 84koa den *Sugeak txoriari begiratzen diorean* delizios hori ere geografia hartantxe kokatu zuen Atxagak.

Lehen aldiz baina, era oso eta sakonago batean Obaba non den benetan erakutsi ziguna (kontakizunaren gaitasun sinbolikoa, ahots desberdinen erabilera, errugabeen presentzia Javier Goñiren arabera) *Bi anai* izan zen. Ramon Sanchez Lizarralde berresten du intuizioa. *Bi anai*, nobela motza, *nubela*, 85ekoa, *Obabakoak* anaia handiaren itzalak, ba hori, itzaletara kondentua, baina ez horratik balio gutxikoa. Iñaki Aldekoa da oraingon laguntzera datorrena, 80ko hamarkadako nobelarik onenetakoen artean sartzen duenean. Ea zergatiak.

Bi anaietako batek, Danielek, badu zerbait, “buruan kanta ttiki bat besterik”, besteengandik diferente egiten duen zerbait. Eta umezurtz geratzen direnean, Paulo anaia gazteak, hama-bost urte, hartu beharko du zaintzan, lotu beharko du motzean herriaren ustezko harmoniak krak egingo ez badu. Pultsioak ez dira eusten erraz, tentsioak sortzen dira Carmen eta Teresa eta gainerako gizon-emazte zuzen eta korrektu eta mantxarrik gabeekin. Mugimendu batek patua markatuko dion arte. Kontakizuna, bestela ezin, bukatu behar den bezala bukatuko zaigu.

Ezen tragedia baita Atxagak azaltzen diguna, tragedia, narraztaileak txori, katagorri, suge edota antzara badira ere. Tragedia, nahiz eta azalean istorio lau, bele xamarra dirudien kontatzen dena. Tragedia, sistema gizabanakoaren gainetik dagoela erakusten baitigu, desberdinak taradunak arraroak taldetik kanpo behar duela taldeak aurrera egin nahi badu, diferentea sakrifizioan ematen dela auskalo zein asmo gorenaren izenean. Eta onena, hori denori parodiaren bitartez egiten duela, fantastiko baino kontakizun miragarriarena, buelta ematen zaiola genero horretako irakurketa onbera eta azukretuari, ifrentzua erakutsi. Eta ez dago ihesbiderik, ez barkamen, ez erredentziorako lekurik. Horixe da Obaba, lagunok.

Bi anai. Atxaga itxuraz orain Yangambira joan zaigun hone-tan, ez da Obabara bueltatzeko biderik luzeena ez, bistan da, malkarrena. ■

Shakespeare-en bizitza, haurrei azaldua

Txertoa argitaletxearen *Nor da?* sailaz hitz egin izan dugu lehenago ere orri hauetan. Pertsonaia historikoen biografiak dira, berezitasun batekin: 9 urtetik 12 urterako haurrei daudela zuzenduta. Jon Bilbao idatzi du William Shakespeare idazleari buruzkoa eta *Shakespeare, antzerkiaren maisua* jarri dio titulu.

Gertakari liluragarriak eta sekretuz beteak aurkeztu du Bilbao idazlearen bizitza: hagatxo magikorik eta txano punta-zorrotzik gabe ere, ahalmen bereziak zituen pertsona baitzen Shakespeare. Jendeari mal-koak isurazteko gai zen, baita barrez lehertzearinoko grazia egiteko ere. Eta haren hitz magikoak bizirik daude oraino. ■



Shakespeare...
Jon Bilbao.
Txertoa.
125 orrialde.
9,95 euro.

Frantses hiztunek euskara erabiltzeko

Garikoitz Knörr de Santiagok *Kaixo! Manuel de conversation français-euskara* liburuarekin frantses hiztunei euskaraz aritu ahal izateko oinarritzko erreminta eskaini nahi izan die. Euskara ikasleentzat baliagarria, baina baita turistentzat, ikastolan dabilen seme-alabak dituzten guraso elebazarrentzat edota Euskal Herriko hizkuntzarekin zaletasuna daukaten frankofonoentzat ere. Egunero erabiltzen diren espresioak bildu ditu Knörrrek liburuan, baina horiez gain bada ahoskera egokia edukitzeko gida labur bat ere. Eta gramatika apur bat ere sartu du, ezinbestean. Gainera, frantsesa-euskara eta euskara-frantsesa hiztegitxoak ere badu liburuak, erabilgarri diren hitzekin. ■



Kaixo!
Garikoitz Knörr de Santiago.
Txertoa.
140 orrialde.
9,45 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bing bang.
Gasteiz Big Band.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 59'08". 10 euro.

Dantza eragiteko dotorezia eta erreminta guztiak

SORALUZeko diskoetxeko Dantza Biltza biltumako talde hau ez da ohiko big banda eta hori agerian gelditzen da, adibidez, erabiltzen dituzten instrumentuak kontuan hartzen baditugu. Haizezko eta perkusio instrumentuez gain, gitarrak, baxuak eta DJak, besteak beste, protagonismo handia dute. Aurretik hamar hatz beteko bina binilo zuzenean grabatu ostean, oraingoan lan luzea prestatu dute. Basie, Mancini, Hamilton, Norman eta Tito Puente

moduko konposatzaile handien piezak hartu eta horiei tonaltate bereizgarriak gehitu dizkiete. Estiloen entsalada erraldoia aurki daiteke hemen: jazz, bossa, soula, latinoa, hip-hopa, erritmo elektronikoak, cha-cha-cha... eta emaitza oso-oso beroa da; horra hor, tronpetak soloak, scratchak edo Kuba inguruko perkusio nekazina dantzaren alde egiteko helburuan.

www.myspace.com/gasteizbb

Jimmy Bidaurreta - Gasteiz Big Band

«Ez dugu big band klasikoen soinu nahi, gaur egungo tendentziak erabiltzen ditugu»

Zure eskura big band bat edukitzea, hainbeste musikari eta instrumentarekin, ametsa da, ezta?

Bai, baina aldi berean gaur egungo garai zailetan halako talde handia osorik eta lanean edukitzeak buruko min handiak ematen ditu. Hala ere, talde honen makinaria indar betez dagoenean esperientzia errepikaezina da; ez dago horren antzekorik.

Zer dauka Gasteiz Big Bandek beste big band batzuek ez dutena? Ausardia? Aurreiritzi eza?

XXI. mendean egotearen pertzepzioa dugu eta gaur egun eskura dauden erreminta eta tendentziak erabiltzen ditugu emaitza borobiltzeko. Bestalde, ez dugu big band klasiko baten soinu bera izan nahi.

Zer izan behar du kanta batek zuek moldatu ahal edo nahi izateko?

Abesti bat izatea eta ez suite bat. Suitea generoko ohiko forma da, jazzetik musika klasikoaren pareko



seriotasuna lortu nahi duena. Gure soinu apustua poperoagoa da, nolabait esateko.

Kuriositatez, kanta bat entzuterakoa berehala dakizu nola moldatu nahiko zenukeen?

Oso garrantzitsua da lehenengo minutuan bertan bertsoaren enfo-

kea oso argi izatea. Askoz errazagoa da norabidea aldatzea bizikletan zoazela, transatlantikoan baino; eta gure kasuan ez da erraza ontzia mugitzea.

Tradizioa apurtzeko eta eraldatzeko dago eginda?

Quantic izeneko musikariak *Tradición en transición* (Tradizioa transizioan) diskoa kaleratu zuen. Ideia horrek laburtzen du fenomeno baten garapen naturala, non ezagutzatik eta errespetutik abiatuta, denborak zehazten du zer eusten duen eta zer ekarpen berri gehitzen diren. Bestalde, ez dago inongo eragozpenik esperimentatzeko, erratzeko, ezta asmatzeko ere.

Muturreraino daramazue musika dantzatzeko dela dioen ideia?

Hasiera batean halako taldeen helburua hori zen; hortaz, gure soinuak hain modernoa dirudien arren, musikaren berezko helburuaren alde egiten dugu. ■

Ezpalak

JON TORNER

Patxi Larrionek historiari buruzko bloga hasi du ARGIA.com-en



PATXI LARRION historian aditu eta ARGIA aldizkariko kolaboratzaileak *Ez gara hutsaren hurrengoak* izeneko bloga sortu du ARGIA.com-en. Historia kontuak izango ditu hizpide iruindarrak, “historiaren istorioak”, bere hitzetan. Egilearen asmoa ez omen da tradizioari traizioa egitea, “baina nork daki”. (www.argia.com/ez-gara-hutsaren-hurrengoak)

Gipuzkoaren jatorriari buruzko DVDa kaleratu du Nabarralde

NABARRALDE elkarteak Gipuzkoaren jatorriari buruz orain arte gehien zabaldu den tesiaren aurka egiten duen dokumentala plazaratu du. Bertan azaltzen da 1.200. urtean Gipuzkoa eta Gaztelaren artean ez zela inongo itunik izan eta Aitzorrotz mendian bederatzi hilabete iraun zuen borroka izan zirela. Gipuzkoa ordura arte Nafarroako erresumaren parte zela azaltzen da dokumentalean, eta azkenean, indarrez pasa zela Gaztelako lurralde izatera. Ruben Marcillak zuzendutako DVDa atzo Donostian aurkeztu zuten Getaria eta Arrasateko alkateak bertan zirela. Angel Rekalde gidoiaren egileak eman zituen azalpenak

Alberto Barandiaran

kazetari altsasuarrak *Veleia afera* liburua (Elkar) plazaratu du. Iruña-Veleiako erromatar garaiko aztarnategian egindako aurkikuntzen eta horien




inguruan sorturiko polemikaren kronika egin du Barandiaranek. Indusketan lan egindako arkeologoei hitz egin du, bertan aurkituriko grafitoen benetakotasuna eta faltsutasuna defendatzen duten txostenen edukiak jaso, gaia jarraitu duten adituen iritzia bildu... Kazetariaren hitzetan, “osoagoak dira Veleiako piezak faltsuak direla dioten txostenak”.

Joxerramon Bengoetxeak

(Irun, 1963) jaso du Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria, Euskal Herriko kulturarekin duen konpromisoagatik. Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) Zuzenbidea, Soziologia eta Zuzenbidearen Filosofiaren teoriaren irakasle eta Katedraduna da Bengoetxea, eta Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluko kidea.

Ornitorrinkus

egitasmoak musika garaikidea, elektronika eta bertsoak uztartzen dituen 12 piezako CD-liburuxka sortu du. Maialen Lujanbiok (ahotsak eta hitzak), Judith Monterok (saxofoia) eta Xabier Erkiak (elektronika eta zaratak) 2006an abiatu zuten ekimen hori. Taldeari buruzko informazioa eta emanaldi batzuetako irudiak www.ornitorrinkus.org webgunean aurkituko dituzue.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Abarrak

UNAI BREA

Errotiko zalantzak

Roots. Alex Haley. Doubleday (1976).

ALEX HALEY-REN izenaz ez zarete, beharbada, zuetako asko akordatuko, baina Kunta Kinterenaz ia denok, seguru. Orain 34 urte argitaratu zen *Roots* (Erroak), literaturaren historiako nobelarik arrakastatsuenetakoa bat salmenten ikuspuntutik. Bertan, Alex Haleyk (1921-1992) XVIII. mendean atzemandako afrikar baten berri ematen du: Kunta Kinte. Kinte AEBetara eraman zuten esklabo, han alaba eduki zuen, alaba hark semea, seme hark... Zazpigarren belaunaldian, eleberraren egilea bera jaio zen.

Kintek beti aldarrikatu zuen bere jatorri afrikarra, eta errefusatu zuen estatubatuarrek emandako izena, Toby. Sorterriko kontuak kontatu zizkion alabari, alaba hark semea, seme hark... arbaso afrikarraren istorioa Alex Haleyrengana iritsi arte. Azken orrialdeetan, Haleyk esplikatzen du nola ondu zuen eleberria, lehenengo senide zaharrenei galdetuz, gero Afrikara joanez, Kinteren jaioterria aurkituz, hango *griot*

—herriaren memoria gordetzen duen gizon— baten ahotik bere bir-bir-bir-birraittea izan zena berri jasoz...

Liburua *boom* handia izan zen. Baina luze gabe, Harold Courlander idazleak plagioagatik salatu zuen Haley; zioenez, *Roots*-en 81 pasarte *The african* nobelatik kopiatuak ziren. Epaitegiak arrazoi eman zion salatzaileari, eta Haleyk liburuari esker irabazitako dolarren zatitxo bat, 650.000 hain justu, Courlanderren patrikara joan zen.

Kunta Kintek baino askoz sona gutxiago dauka, bestalde, Elizabeth Shown genealogistak *Roots*-i egindako kritikak: hamaika ikerketa egin eta gero adierazi zuenez, ezinezkoa da Toby izeneko esklabo hura Haleyren arbasoa izatea; datak ez datoz bat. Are, susmoa dago Haleyri Kunta Kinteren istorioa kontatu zion *griot* afrikarrak ez ote zuen jaso horixe bera esateko “presioren” bat. Fikziozkoak dira Haleyren erroak? ■



duran...go!
goazen!

www.durango-euskaraz.net




DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Zalantza. Barazkiak egosiz eta txikituz egindako krema. 2. Nafarroako herria. Dezimetro. 3. "Erdi" hitzak hitz-elkarketetan hartzen duen forma. Lapurdiko udalerria. 4. Sasiarte, sastraka. Zerbaiteko gogo bizia, irrika. 5. Ugaritasun atzizkia. Galtzarbe. ... beko, aurrez aurre. 6. Norbait sufritzen ikustean gupidarik sentitzen ez duena. Dardar egin. 7. Zeharo. Nornahi, edozein pertsona. 8. Bizkaiko udalerria. Zerbait uste izatera bultzatu.

Goitik behera:

1. Elekatu, hizketan jardun. 2. **Argazkian**. 3. Sagar hondakin. Suari dariona. 4. Zerez atzizkia. Iberiar hitz-elkartetan. 5. Egoitza batean kokaturiko eliza txikia. 6. Deabrua uxatzeko hitza. Pare bat. 7. Nihaur (alderantziz). Zuhaitzaren beso. 8. Aupatu, goratu. 9. Edozein gauza. 10. Amaiera, bukaera. Oihu, hots. 11. Badago. 12. Erori aditzaren infinitiboa. 13. Luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa. 14. ... otoan, ezustean. 15. Zeuri.

Sudokuak

Erraza

	9		2		4	8		1
				7	1	9	3	
	2			9	8	6		
	3	6	1	4		5		
		1		3	9	4	2	
		9	8	5			6	
	5	3	4	2				
7		4	9		3		5	

Zaila

				4	9	1	6	
			1					
		7		6		2	4	9
						6	2	
6		9				4		3
	8	2						
3	7	1		2		9		
					3			
	4	5	9	8				

Soluzioak

Goitik behera: 1. Elekatu. 2. **Argazkian**. 3. Sagar hondakin. Suari dariona. 4. Zerez atzizkia. Iberiar hitz-elkartetan. 5. Egoitza batean kokaturiko eliza txikia. 6. Deabrua uxatzeko hitza. Pare bat. 7. Nihaur (alderantziz). Zuhaitzaren beso. 8. Aupatu, goratu. 9. Edozein gauza. 10. Amaiera, bukaera. Oihu, hots. 11. Badago. 12. Erori aditzaren infinitiboa. 13. Luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa. 14. ... otoan, ezustean. 15. Zeuri.

Ezker-eskuin: 1. Zalantza. Barazkiak egosiz eta txikituz egindako krema. 2. Nafarroako herria. Dezimetro. 3. "Erdi" hitzak hitz-elkarketetan hartzen duen forma. Lapurdiko udalerria. 4. Sasiarte, sastraka. Zerbaiteko gogo bizia, irrika. 5. Ugaritasun atzizkia. Galtzarbe. ... beko, aurrez aurre. 6. Norbait sufritzen ikustean gupidarik sentitzen ez duena. Dardar egin. 7. Zeharo. Nornahi, edozein pertsona. 8. Bizkaiko udalerria. Zerbait uste izatera bultzatu.

8	5	3	1	2	5	8
7	6	4	9	1	3	2
8	5	3	4	2	6	7
2	1	9	8	5	7	3
5	8	1	7	3	9	4
4	7	2	6	8	5	1
9	3	6	1	4	2	5
1	2	7	3	9	8	6
6	4	8	5	7	1	9
3	9	5	2	6	4	8

Erraza

6	1	3	7	8	9	2	4	5
8	9	6	4	1	3	7	5	2
3	7	1	5	2	6	9	8	4
7	8	2	6	3	4	5	9	1
6	1	9	2	5	8	4	7	3
4	5	3	7	9	1	6	2	8
1	3	7	8	6	5	2	4	9
9	6	4	1	7	2	8	3	5
5	2	8	3	4	9	1	6	7

Zaila

FUCKING ARTISTS

Xabier Montoia

Hamar ipuin, gizon-emakume zenbaiten erradiografia kontatzen dutenak.

HATSAREN KULUNKA

Herta Müller

Gaspe errumaniar bat lan esparru sobietarrean: basakeria eta umiliazioa hizkera gogor bezain liriko batean. Nobel saria

www.elkarargitaletxea.com

Heldu literaturari



Durangoko **Euskal Liburu eta** **Disko Azoka** **2010eko abenduaren 4tik 8ra**

Laguntzailea:



EROSKI

zurekin

Osasuna

JABIER AGIRRE

Zer dago zurrungen atzean?

ESTATISTIKEK oso argi uzten dute: bost biztanletik batek zurrunga egiten du normalean. Horietako askok, arazoa konpontzen saiatu ordez, bere “ezaugarri” berezia balitz bezala hartzen dute, konturatu gabe luzarora osasun-trastorno larriak ekar ditzakeela, iktus bat edo miokardioko infartu bat esaterako; izan ere, zurrunga egitean gorputza ez baita behar bezala oxigenatzen. Horrez gain, arazoa ez da soilik zurrunga egiten duenarentzat, haren ohekideak ere gauero jasan behar baititu zarata-hotsak eta loaldiaren etenaldiak. Konponbidea bilatzeak bikotekide bien mesedea ekarriko du.

Zurrungaren arrazoia oso ugariak dira; izan daitezke anatomikoak (sudur-trenkada desbideratua, edo ahosabai luzea edukitzea), edo arnas arazoak (hozturak, sinusitisa, alergiak), edo baita kilo gehiegi izatea ere. Konponbidea, noski, jatorriaren arabera izango da. Medikuarengana joan bitartean, hona hemen aholku erraz batzuk:

Zurrunga egitea eragozten dute hau bezalako makinek.



- **Utzi erretzeari.** Tabakoak faringeko mukosa narritatzen du. Zurrunga egiten dutenek hobekuntza handia sumatzen dute erretzeari uzten diotenean.

- **Aurre egin gain-pisuari.** Gehiegizko kiloek, beste kalte askoren artean, zurrungaren kontrako kirurgia eraginkorra ez izatea ere ekar dezakete.

- **Ez edan alkohol gehiegi.** Alkoholak, besteak beste, eztarriko muskulatura gehiegi erlaxatzen du, eta horrek trastornoaren agerpena erraztu dezake.

- **Egin lo albo batera etzanda.** Jarra horretan lo egiteak arnasketa errazten du. Oheburua zertxobait altxatzea ere komeni da.

- **Eztarri-inguruko ariketak egin.** Aire txanda laburretan hartu ahotik, eta ondoren mantso-mantso bota, ezpainak txistu egiteko moduan jarritz. Horrek eztarriko muskuluak tonifikatzen ditu.

Sarritan, zurrunga gogaikarri horien arrazoia etxeko botikinean egon daiteke. Ezkularen eta minaren kontra inolako arreta-neurri berezirik gabe —eta askotan, medikuaren errezetarik gabe— erabiltzen diren botika batzuek kodeina dute, eta substantzia horrek zurrunga egitea eragiten du. Kontuz, beraz, etxeko erremedio eta botikekin.

Odol artifiziala, AEBetako soldaduentzat baino ez?

Behean ageri diren lotura bieta-ko lehenean *Odol artifiziala nahi baino urrunago* izenburua irakur daiteke. Bigarrenean, berriz, orain dela hilabete batzuetako albiste hau ageri da: Pentagonoak muga gabeko odol artifizial iturri bat lortu du bere soldaduentzat.

<http://ttiki.com/19988> (Euskaraz)

<http://ttiki.com/19989> (Gaztelaniaz)

Aitaren dietak eragina du seme-alabengan

Ikerketa baten arabera, ernalketaren unean, amaren ez ezik, aitak dituen pisuak eta dietak ere eragina izan dezakete jaioko den umearen osasunean. Besteak beste, haurrak diabetesa izateko arriskua handitu dezake aitak koipe gehiegi hartzeak.

<http://ttiki.com/19992> (Gaztelaniaz)

GI Baren kontrako botikak GIBa hartzeko arriskua gutxitzen dute

Behin birusarekin kutsatuta hartzen diren sendagaiek kutsatzea bera eragotzi dezakete, adierazi du zientzialari talde batek. Ez dirudi prebentzio bide hau erruz erabiltzekoa denik, baina ez dadila inor larritu: bestela ere, halako medikamentuen salmentak dezente hazi dira aurtengo hirugarren hiruhilekoan.

<http://ttiki.com/20033> (Frantsesez)

Unai Brea

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hur

LEIOAKO CAMPUSAREN baratzean dagoen hilerri berezian, ikerketarako emandako gorpuen behin-betiko tokian, *Olea europaea* olibondo arrotzaren ordeztu zer jarriko nukeenaren zalantza bueltaka dabilkit. Kaskoa argitze aldera, hilerriak bisitatu besterik ez dago. Gehienetan kristauen jasak ekarri zuen altzifre edo nekosta mediterraniarra (*Cupressus sempervirens*) da nagusi. Ohikoak dira, baita ere, bera zelakoan aldatu-

tako tankerako beste konifero ugari: zedroak (*Cedrus* spp.), tuiak (*Thuja* spp.), zedro japoniarrak (*Cryptomeria japonica*), izeiak (*Abies* spp., *Picea* spp. edo *Pseudotsuga* spp.)... Urte puska batean ukitu ez diren hilerrietan bestelakoa da baratzea. Aranokoa izan naiz gaur bertan eta han dago ez dakit zenbat urte pilatua izango duen hagina, *Taxus baccata*.

Hagina izan beharko litzateke bai gure hilerrietako etxezaina, ama, amona, birramona, amandrea, amabitxia, ama pontekoa, ama besoetakoa... Hil ondorenean gure gorputzak sortzen duen bizitza guztia-
ren amatzakoa. Hagina izan da geurean babesa, luze bizi eta etengabeko biziberritzearen ikurra. Pozoitsua, ebakitakoa egur gorriak odola dariola dirudi, zura onenetakoa, milaka urte bizi dena... Gure ikur zaharrenetakoa dela uste dut.

Ez da bakarria, orde. Gure kulturak badu bizitzaren betikotasunari eusteko landare mitikotik: intsusa (*Sambucus nigra*), haritza (*Quercus robur*), elorri zuriak (*Crataegus* spp.)... Hilerrira bizitzaren ikurra eramatekotan pare bat azpimarratu nahi dut, baina: hurritza, *Corylus avellana*, eta lizarra, *Fraxinus excelsior*.

Milaka urte askotan gure kulturaren euskarri izan da hurritza. Ugarietan ugaria, bakulu-makila, eraikuntza gai, urteko sasoi guztietarako jaki... Hurritzaren hur hitz hori ez al dugu zaharren artekoa? Ea bateren batek argitzen digun...

Lizarrarenak beste batean beharko du, kabitu ere egin behar baita.



Haginaren (*Taxus baccata*) ikurra uztarri batean, oraindik ere gaur egun jartzen den eran.



JAKOBA ERREKONDO

azkonobieta
basogintza lanak


baso-berritzeak
kimatze lanak
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g
20159 Asteasu (Gipuzkoa)

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Gandhi ala dandi?



Mahatma Gandhi (1869-1948) 1906an, Hegoafrikan abokatu zen garaian, ezagun egin zuen janzkera eta ohitura soilak erabiltzen hasi baino lehen.

LONDRES, 1888. Mahatma Gandhi 18 urteko indiar gaztea Inner Temple eskolara iritsi zen zuzenbide ikasketak egitera. Ordura arte, jaioterrian, Gujarat eskualdean ohikoak ziren turbana, alkandora luzea eta praka zabalak eraman ohi zituen soinean, baina

Ingalaterran erdiko klase europarren janzkera eta jarrera hartzea erabaki zuen. Besteak beste, dantza eta elokuzio eskolak hartu zituen.

Ikaskide batek, indiar jatorrikoa bera ere, halaxe deskribatu zuen Gandhi gaztea: “Eskuilaz eta kontu handiz distirarazten zuen zetazko kapela luzea zeraman, alkandoraren lepoa almidoiztatua, ostadarraren kolore guztiak zituen gorbata deigarria eta kalitate handiko alkandora marraduna. Gandhik jaka, barneko gurutzatua, harekin ondo ematen zuten praka ilun marradunak, bernizezko botak eta azpantar laburrak jantzi ohi zituen. Larruzko eskularruak eta zilarrezko burua zuen eskumakila eramaten zituen beti”.

1893an abokatu gisa lan egitera Hegoafrikara joan zen eta han ere Londresen hartutako janzkerari eutsi zion, xehetasunen bat gorabehera. Bezero gehienak merkatari indiarrek zituen eta haiekin identifikatu nahian bere itxurari ukitu indiarra ematea erabaki zuen: negozio-gizonen traje txukunari turbana erantsi zion.

1913tik aurrera, jantziak erantsi baino, janzkera murrizten eta soiltzen hasi zen. Urte hartan, Hegoafrikako gobernua indiar etorkinen eskubideak murrizten hasi zen. Gandhi lan kontuekin eta eskubide zibilekin zerikusia zuten auzietan lan egiten hasi zen eta idolotzat zeukan Tolstoiren eredu jarraitu zuen. Errusiar idazleak nekazari bezala bizitzea eta janztea erabaki zuen.

1913ko abenduaren 22an Pieter Maritzburg espetxera askatu berri zituzten preso indiarrei ongi etorria egitera hurbildu zenean, belaunerainoko kotoizko tunika eta nekazariak eraman ohi zuten *lungi* izeneko gona zituen soinean. 1948an New Delhin hil zutenean bezala.

Arrastoak

Jende oldeak Kapera Sixtinoa hondatzen ari dira

MICHELANGELO BUONARROTIK Vatikanoko Kapera Sixtinoaren sabaian egindako margolanak arriskuan daude. Urtero lau milioi bisitari jasozten ditu artelanak eta, ondorioz, hariz, zuntz sintetiko eta hilez osatutako hautsak pinturak estaltzen ditu. Hauts horrek, gainera, airea iragazte-

ko erabiltzen duten makina buxatzen du. Horregatik Consiglio Nazionale delle Ricerche delakoak Kapera Sixtinoa hiru dimentsiotan irudikatuko lukeen erreplika birtuala egitea proposatu du. Helburua ez litzateke egoitza publikoari ixtea, bisitari kopurua murriztea baizik.



WWW.PONTUALI.COM



Niko Moreno

Bilbo, 1963. Ezker abertzaleko kidea da; Elorrioko alkatea (ANV-EAE). Arte Ederrak ikasia. Politika posiblearen artea ei dela-eta, mundua ez, baina Euskal Herria eraldatzeko konpromisoa hartu zuen gaztetan. “Askok galdetzen didate: ‘zer, errepikatuko duzu?’. Zintzoki esaten diet, militante fidela naizela, eta eskatzen didaten lekuan izango naizela”, esan digu datozen hauteskundeak hizpide harturik.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Ildo estrategikoarekiko atxikimendua erabatekoa da»

Datorren maiatzeko Udal eta Foru hauteskundeak hizpide hasi gara berbetan. Haatik, ezker abertzaleak *Zutik Euskal Herria* adierazpena kaleratu zuenetik zabaldutako egoera politiko berria ere agertu da elkarriketan. Bake edo normalizazio prozesuaren gaia, alegia.

Ezker abertzaleak (Batasuna) Udal eta Foru hauteskundeetan parte hartzeko aukera ikusten al duzu?

Asmo hori badugu behintzat. Guretzat oso inportantea litzateke parte hartzea, baita Euskal Herriarentzat ere. Alderdi guztiontzat berdintasunean lehiatzea mesedegarria izango litzateke, eta prozesurako lagungarria. Une honetan, egoera politikoa ikuspegi horretatik interpretatu behar dugu. Gu horretan ari gara lanean. Dena den, hauteskundeeta-

rako bide luzea dago oraindik. Gu orain gehien kezkatzen gaituena prozesua ondo bideratzea da. Hori egiten den momentutik errazago izango da galdera honi erantzun finkoagoa ematea.

Normalizazio prozesuan al gaude?

Ezker abertzaleak Euskal Herria normalizazio politiko-demokratiko egoerara eramatea du xede, hau da, eskubide guztiak errespetatuak eta proiektu politiko guztiak gauzagarriak izango diren agertokira. Hori litzateke benetako egoera normalizatua. *Zutik Euskal Herria* adierazpena kaleratzean horretarako erabakia hartu zuen, eta modu batez edo beste panorama politikoan prozesuaz berba egiten da. Oraindino prozesurako osagai guztiak mahai gainean ez badaude ere, prozesua bideratzeko

jartzen ari diren bitartekoez berba egiten dugu denok. Ezker abertzalea bakarrik abiatu zen, eta gero beste eragile batzuk etorri dira: EA, Aralar, Alternatiba... EAJ, PSE eta PP ere, beren ñabardurekin, zabaltzen ari den jokaleku posibleari begira daude nolabait. Teknikoki, bake edota normalizazio prozesuan ez bagaude ere, bidea egiteko osagaiak denok darabatzagu motxilan.

Mario Zubiaga irakasleak “hauteskundeak distortsio izugarria dira prozesuetan” esan du orriotan.

Izan litezke, baina osagai argigarria ere izan daiteke. Hauteskundeak distorsionagarriak izango dira, noski, eragile politikoek ez badugu beraien irakurketa egokia egiten. Alderdien eginkizuna hauteskundeak gotorkua bihurtuz gero, izan litezke distor-



"Aurreiritziak laga behar dira, guk ez dugu NaBai hautsi nahi. Gure proposamena zintzoa da, ezker abertzaleak eragin gura du, ez NaBain, baizik eta Nafarroan".

hori behin eta berriro erabiltzea. Gure proposamena ez da EAJ inkomodatzeke, Nafarroan aldaketa gauzatzeko aukerak ematen direlako baizik. Proposamena NaBairi egin zaio. EAJk zer egingo duen? Bada, berak hartu beharko du erabakia. EAJk asumitu du Aralarrekin edo EARekin Nafarroan aritzea eta ez EAEn. Aralar bere momentuan EBrekin batera aurkeztu zen EAEn eta Nafarroan beste batzuekin...

tsionagarriak. Ordea, prozesuari edota Euskal Herriari begiratzen badiogu, argigarriak izan beharko lukete. Noski, horretarako hauteskundeetan aukera guztiak egon ahal izatea funtsezkoa da, horrela artikulatu litezke soilik mugimendu politikoak zentzu batean edo bestean. Noski, hauteskundeen aitzakian "geratu dezagun prozesu posiblea eta gero gerokoak" pentsatuz gero, hauteskundeak egoera nahasteko izan litezke. Guk hauteskundeak egoera argitzeko gura ditugu, orain zabaltzen den unea garrantzitsua baita denok gure planteamenduak mahai gainean ipintzeko.

Altsatsun hasi zen ezker abertzalearen prozesu berria. Zer ekarri du ibilbideak ordutik gaur arte?

Ezker abertzalea fase eraikitzaile batera pasa zen, lanerako fasean gaude orain. Giro politikoak astin-

du ederra hartu zuen, bai gure etxe barruari dagokionez, baita gainontzeko alderdiei dagokionez ere. Ilusioa ekarri du. Nik, oro har, dudan sentsazioa da gizartean baikortasuna handitu dela, orain dagoen ilusioa duela urte bete zegoena baino handiago dela. Egoera politikoaren pertzepzioa ez da zapuzgarria, osterantzean, gatazka ate berriak zabaltzeko parametroetan kokatu dugu, parametro ilusionagarrietan.

Hauteskundeak hizpide, zuzen eta artez: NaBai berria osatu daiteke Batasuna edo ezker abertzalearekin?

Osa liteke. Nafarroan formula bat adostea posible izan behar luke, baldin eta Nafarroan aldaketarako baldintzak badaudela benetan pentsatzen badugu. Ezker abertzaleak eskaintza egin badu, aukera izan beharko luke, alderdien siglez harago joateko.

Uxue Barkosek Batasunak NaBai hautsi nahi duela esan du.

Alderdien eta independenteen nahi pertsonalez harago joan beharko genuke nik uste, eta ez dut hori esaten inolako espektatiba faltsuak zabaltzeko. Aurreiritziak laga behar dira, guk ez dugu NaBai hautsi nahi. Gure proposamena zintzoa da, ezker abertzaleak eragin gura du, ez NaBain, Nafarroan baizik.

Iñigo Urkulluk "ez dioela ezker abertzaleari lurrartzeko pista jarriko" dio. Kurioso da EAJk beto eskubide

(...)

XXI proposamena ezer hausteko asmoz egin dela esatea larregi da. Horiek gotorlekuetan mantentzeko egiten diren irakurketak dira. Nafarroan, aldaketarako egon daitezkeen aukerak goi-ikuspegi batek aztertu behar dira. Ezker abertzaleak ez du siglei begira aurre-baldintzarik jartzen, egoera politiko zehatz honen aurrean indar metaketari azkeneko bultzada ematea planteatu du. Benetan sinesten badugu Nafarroan aldaketa posible dela, dokumentu hori da gure ekarpena; baina ez inori lekua kentzeko, gure herriaren proiektuak hortik pasa behar duelako baizik.

ETak Bruselako Adierazpenaren eta Gernikako Hitzarmenaren sinatzaileei erantzutea espero al duzu?

Bai. espero dut eta espero dugu, eskaera hori egin dugulako. ETari egin diogun eskaera ezker abertzalearen borondatearen adierazle argia da. Adierazgarria da ere esperoan egotea eta itxaropena izatea. Eskaera zuzena da orain arte ETak pauso garrantzitsuak eman dituelako. Egin dituen ekarpenak batzuentzako "ez nahikoak" izan arren, guk ekarpenak norabide konkretuan eta oso baliogarriak egin izan dituela diogu. Erantzun horien esperoan egoteko itxaropena eta konfiantza daukagu. Orain ezin dugu pazientzia galdu eta buruari epeak markatu.



Ekarpen “ez nahikoak” esan duzu. Hauteskundeetan ezker abertzalea ez egoteko “ez nahikoak”.

Bai, batzuek langa hori jartzen ari dira. Gu, aldiz, egin beharrekoak egiten ari gara, gure etxeko lanak, ea hau edo beste hori ematen den itxaron barik. Batzuek diote “urtarrilerako ez bada, berandu izango dela hauteskundeetan egoteko”, baina nola esan dezakete ezer, urtarrelean gerta daitekeena ez badakite? Ematen du langa gordeta daukatela mahai azpian eta urrats bat ematen denean, beste langa bat aterako dutela: “Orain beste hau gaingitu behar da, beraz, beste langa bat...”. Guk konfiantza osoa dugu ETAk Gernikako Adierazpenari eta Bruselakoari norabide zuzenean erantzungo diola, ez dakiguna da noiz. Laster egiten badu seinale ona izango da, baina geroago egiten badu ere, ez dut uste seinale txarragoa izango denik.

Brian Currin eragile askoren ahotan dago azkenaldion. Batzuentzat berebiziko rola dauka, beste batzuek gutxietsita dago.

Brian Currin-en rola eta presentzia garrantzitsua da oso. Pertsona aditua eta aritua da, mota honetako ekimenetan trebatua, eragile oso inportantea da: berak eta Bruselako Adierazpenaren sinatzaileek gatazka panorama internazionalan ipini eta ardurak banatu dituzte. Besteak beste, “presioa” sakatu du eragile guztien artean eta etxeko lanak banatu, ez bakarrik alde batean. Halaber, gatazka parametro politikoetan kokatu du. Hein handi batean, gatazkaren konponbiderako prozesu politiko elkarriketatuaren premia zabal-

du du. Ez da alde batek edo besteak egiten duen diskurtsoaren aldean paratu, erdian dago nolabait. “Etorri zaitezke hona” ari da esaten, “konponbidea etorriko bada, hemendik etorri behar duzue”.

Urkulluk esana hau ere: “Egiaztatzea Eusko Legebiltzarrari dagokio, ez nazioarteko ikuskari batzuei”.

Hori beste langa bat ipintzea da. Orain arteko eskaera ETArekin su-ten “egiaztagarria eta behin betikoa” zen. Hori zen langa. Orain gaingitutako balitz, “ez, ez, egiaztagarria izatea Legebiltzarrari dagokio”. Ez dut ulertzen. Zaila da legebiltzar horrek eskumen hori edukitzea. Legebiltzarrak esku hartu beharko luke? Ez dakit, baina eskusibitatea izatea, ez da ulergarria. Holako oztopoak jar-

“Konfiantza osoa dugu ETAK Gernikako Adierazpenari eta Bruselakoari norabide zuzenean erantzungo diola, ez dakiguna da noiz”

tzeko ohitura kendu behar dugu, irakurketa positiboak egin behar dira. ETAk horrelako eskaintza egingo balu, zuzena litzateke zentzu positiboan onartzea. Hasteko, ikus dezagun ETAk zer dioten. Areago, Legebiltzarrean ezker abertzaleak ez du ordezkartzarik, zertara dator hori? Ordezkartzarik ez daukagun foro batek egiaztatu behar al du?

Jesus Egiguren da beste izen propio bat. Zer deritzozu bere jarrerazi?

Egigurenek ildo koherente bat mantendu duela esan daiteke. Patxi Lopez bidali zion gutunean –filtratutakoa– “has gaitezen urratsak ematen” zioen. Egigurenek Euskal Herriko egoerari buruz irakurketa zabala eta sakona egiten du, aurrera begirako proiektioz egina. Gero, ETArekin adierazpena Gabonak baino lehen etorriko dela esaten duenean... Ni horretan ez naiz sartuko. Bere pertzepzioak dira, nik ez dakit ezer horretaz. Mezuak zein medioetatik datozen ere neurtu behar dira. Bada, gauza esanguratsua: honetan hasi zenean PSEko presidentea zen eta izaten jarraitzen du egun ere. Interesgarria litzateke bere ikuspegia zabala izatea PSEn.

Ezker abertzalean hausturarako proportziorik ikusten duzu?

Ez, erabateko ez. Ezker abertzalea oso kohesionatua iritsi da une honetara. Une gorriak pasa ditu, prozesua gogorra izan da, baldintzak ez dira onak izan. Joan den urriko atxilotetak eta gero etorri diren oztopo guztiak gogoratzea besterik ez dago. Horrek prozesua oztopatzea baino barne kohesioa ekarri du. Ildo estrategiko berri honekiko atxikimendua erabatekoa da, eraikitzailea delako, berritzailea delako, eta esan bezala, ilusionagarria delako herri honentzat.

Ezker abertzalearen eta ETArekin arteko hausturarako proportziorik ikusten duzu?

Ezta ere. ■

argia.com Elorriko alkatearen berbak AHTr buruz.



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Historialarien Galeusca

Madrilgo Historia kanonari erantzuteko jardunaldiak

Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako eta Galiziako historialariek Nazio eraikuntza eta nortasun zapalketaren artean jardunaldia egingo dute Bartzelonan. Ez da topaketa bat gehiago, Espainiako historiografia zentralistari akademikoki erantzuteko ekimena baizik.

URKO APAOLAZA


HIRU HERRIALDEETAN BATERA iragarri dute aste honetan Galeuscaren lehen historia topaketa, Bartzelonako Museu d'Història egingo da abenduaren 10 eta 11n. Ekimena XX. mendetik Espainian nagusitu den Historia kanon zentralistari aurre egiteko sustatu dute unibertsitate munduko bultzatzaileek, baina aspalditik ernatzen ari den mugimendua da honakoa.

Duela bi urte, 2008ko uztailaren 18an, unibertsitateko 35 irakasle eta katedradunek manifestua plazaratu zuten Bartzelonan. Espainiako Estatuaren “uniformizazio saiakeraren” aurrean, 1923ko *Aliantza Hirukoitz*a deiturikoaren espiritua aldarrikatu zuten, ondoren Galeuscaren sorrera ekarri zuena. Manifestuan, Galizia, Euskal Herria eta Kataluniaren elkar ezagutzan laguntzeko konpromisoa agertzen dute sinatzaileek, besteak beste. Hamarnaka historialarik eman diote jadanik babesa manifestuari, gehienak Kataluniakoak, baina badaude Galizia eta Euskal Herrikoak ere: Xoxe Estevez, Josu Chueca, Jose Luis Orella, Francisco Letamendia, edota Jose Manuel Castells, beste hainbaten artean.

Kongresua, urrats handia

Bartzelonako manifestuaren sustatzaileek iragarri zuten Historialarien Galeusca sendotzeko kongresua antolatuko zutela. “Manuskritoek, ez badute jarraipenik izaten, horretan geratzen dira” dio Enric Pujol Bar-

tzelonako Unibertsitate Autonomoko historialariak. Pujol burubelarri ari da datorren asteko historialarien topaketa antolatzen: “Beti ari gara historia konparatuaz hitz egiten, baina inoiz ez dugu konparatzen” dio. Bartzelonako jardunaldiak presatzeko denbora tarte luzea behar izan dute, baina historialari katalanaren esanetan “lehenengoa da zailena, hau ekitaldi fundazional bat izango



da”. Hemendik aurrera, dena ongi bidean, bi urtean behin mota horretako jardunaldi bat egiteko asmoa dago. Pujol ez da ausartzen ekitaldiari “kongresu” deitzera: “Zerbait malguagoa nahi genuen, erraztasunak eman parte hartzeko, horregatik antolatu ditugu jardunaldiok; eta erantzuna bikaina izan da, jadanik hogeik komunikazio jaso ditugu-eta”.

Jardunaldiek babes zabala izan dute orain arte, ez da historialari gutxi batzuen bilkura izango, horren erakusle da atzean dagoen erakundeen zerrenda zabala: Centre d'Història Contemporània de Catalunya, Asociacion Galega de Historiadores, Grup d'Estudis d'Història de la cultura i dels Intel·lectuals, EHUKo Historia Garaikidearensaila, Eusko Ikaskuntza... Jardunaldien antolaketa zama handiena, berriz, Coordinadora de Centres d'Estudis de Parla Catalana-k hartu du. Kataluniako herrietan hamarnaka historia ikertalde daude eta horiek guztiak batzeko sortu zen koordinadora 1990eko hamarkadan. Bere lana ezinbesteko bihurtu da Historialarien Galeuscaren lehen bilkura hau aurrera ateratzeko.

Euskal historialariak bertan

Euskal Herritik hainbat historialari joango dira Bartzelonara hitzaldiak ematera, horien artean da Joseba Agirreazkuenaga EHUKo katedraduna. Agirreazkuenagak badu esperientziarik honelako ekimenetan, besteak beste, *Catalunya-Euskadi*

historia mintegiaren (2005-2008) sustatzaile izan delako Jaume Sobrequés historialari eta politikariarekin batera. Hain zuzen, bera ari da oraingo jardunaldi hauen inguruan Euskal Herriatik egin beharreko lanez arduratzen.

Agirreazkuenagak aldizkari honi azaldu dio ekimenari tonu akademikoa eman nahi izan diotela, horregatik parte hartzaile gehienak unibertsitateari edo pisuzko erakundeei loturik daude, eta hitzaldiak maila handikoak izango dira: “Edo gai gara kongresu bat egiteko edo ez goaz inora” dio katedradunak. Dena den, Agirreazkuenagaren esanetan ez dira ezer berria asmatzen ari, Galizia, Euskal Herria eta Kataluniako berezitasuna jada XIX. mendean azpimarratu baitzuen Arturo Campionek berak, eta ideia hori azaldu zuten idazle nafarrak eta beste batzuek *La España Regional* aldizkari katalanistan.

Galeusca osatzen duten herrialdeen bilakaera historikoaren azterketak “ikusuntuak komunean jartzeko balio lezake, baina baita erritmo

Ponentziak eta komunikazioak

Bartzelonako Museu d’Història de Catalunya egindako jardunaldiak bi egunez luzatuko dira eta XVI. mendetik XX. mendera arteko gaiak landuko dituzte, nazio eraikuntzarekin zerikusia dutenak, beti ere. Jordi Casasas, Uxío-Breogan Diéguez, Antoni Simon, Pegerto Saavedra... dira hitz egingo duten historialarietako batzuk. Euskal Herriatik, berriz, Joseba Agirreazkuenagak “euskal nazonatsunaren” diskurtsoez hitz egingo du; Alberto Angulo EHUKo historia irakaslea euskaldunek Madrilgo gorteetan izandako eraginaz jardungo da; Xoxe Estevezek (Deustuko Unibertsitatea) Galeusca-ren historia errepasatuko du; eta Josu Chuecak (EHU) izenburu deigarria duen ponentzia prestatu du frankismoaren errepresioaz hitz egiteko: *Se prohíbe la palabra ‘Agur’*. *Son tiempos de Viva España*.

Horrez gain, hainbat komunikazio aurkeztu dituzte unibertsitateen bidez. Zehazki, EHUKo Historia Garaikideko sailak lau komunikazio irakurriko dira, horietako bat euskaraz, Unai Belaustegik egina, Petra Arsuaga bergarraz eta bere senar Francesc Pi i Margall politikariak.

ezberdinak ezagutzeko ere” dio jardunaldien aurkezpen oharrak, eta ildo horretan, bistakoa da katalanen pisua askoz handiago dela topaketan. Joseba Agirreazkuenagaren ustez hori ez da harritzekoa, Katalunian erakundetze akademikoa, zientifikoa eta unibertsitarioa askoz handiagoa baita, eta Euskal Herrian urruti

gaude oraindik egoera horretatik; egon, ez baitago historia elkarte eta erakunde guztiak batuko lituzkeen koordinakunderik ere. Hain zuzen, Historialarien Galeuscak bi urtean behin egingo dituen topaketok, edukietan sakontzeaz gain, akuilu lana ere egin dezake eta euskal historialarien egituratzean lagundu. ■

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

(3. finalaurrea)

Gernika-Lumoko Jai-Alai pilotalekuan

(abenduak 5, 17:30)

Fredi Paia

Oihana Bartra

Beñat Ugartetxea

Gorka Ostolaza

Xabier Enbeita

Joseba Artza

Gai jartzailea:
Zuriñe Larritu





Miren Intxausti

Seaskako irakasle beteranoa

«Hizkuntzarekin gozatzea ahortzi zaigu bidean»

Erretreta orain dela bi urte pasatsu hartu zuen arren, lanean aritu da kasik atzo arte. Hendaiko Gure Ikastolako hizkuntza proiektua izan du esku artean, irakaskuntzari lotuak diren hizkuntzak, kasu honetan euskara eta frantsesa, nola kudeatu behar diren finkatzeko ahaleginetan.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

la berrogei urte irakasten. Zein da zure bilana?

Irakatsi baino gehiago, ikasi egin dudala iruditzen zait; eman dudana baino gehiago zor dudala, eta benetan diot. Interes minimo bat, gogo minimo bat duenak ikasi egiten du eta niri gauzak jakiteko grina pasatu didate ikasleek. Kontabilitate orokorra eginda, zorte izugarria dudala iruditzen zait.

Nork irakatsi dio irakasleari? Zer edo nor izan duzu etsenplu?

Donibane Lohizuneko ikastolan

—eta Hendaikoan azken bi urteetan— lankide izan ditudan gehienak etsenplutzat ditut, arlo jakinen batean apartak izateaz gain, haien dohainak ondokoei pasatzeko grazia hori badutelako. Baina guztien gaitetik ezer jartzekotan, ikasle integratuak aipatuko nituzke. Horiei esker, eskolan zailtasunak dituztenekiko begirada aldatu egin zait guztiz.

Bestalde, pena da baina ofizioan eman ditudan urte mordoan oso gutxitan izan dut besteen lana ikusteko aukera, gure irakaskuntza horrelakoa izan baita. Irakasleak

gure gelan bizi gara. Beharbada besteren batekin prestatuko dituzu lanak, baina gero zure gelan sartu, atea itxi eta bakarrik gelditzen zara. Azken bi urtez aritu naizen bezala, gela beste irakasle batekin konpartitzea, hori benetan mundiala da.

Zer egiten da atea itxi eta zure mundu horretan gauzak nahi den bezala ez doazenean?

Bakoitza den bezalakoa agertzen da horrelakoetan. Eta normalean, txarretik gehiago ateratzen da. Frustrazioa, tristura sentitzen da... ikasleei

barkamena eskatzea ere egokitzen da zenbaitetan. Gero, autokritika, eta azkenean, ez dakit nondik nora, argiren bat pizten da, eta ilusioak harrapatuta, beste bideren bati ekiten diozu ia konturatu gabe.

Zein izan duzu erronka nagusia, zure buruari helburutzat jarri izan diozuna?

Gu, irakasleak, ikastola osoa, etengabeko kontraesanean bizi izan garela iruditzen zait.

Jende askorentzat garrantzi handirik ez duen zerbait garatu nahi izan dugu: euskara, herria, euskal kultura, euskalduntasuna... Jakina, konbentzituak beti izan dira, baina gainerakoentzat arazoa zen. Haurrak irakurtzen eta idazten ikasi ote zuen, matematika maila gaitzitu duen, frantsesa ikasten ari den edo jakin badakien, hori da espero dena, axola duena. Eta guk irakasleok ere horixe bera indartu dugu, ez genekielako gure egitekoa nola burutu. Harrapatuak izan gara eta azkenean euskarak garrantzi soziala, prestijioa, galdu du apurka. Euskal kultura goratzea edo 'euskaldunak gara eta hau egingo dugu euskaldunak garela' bezalako diskurtsoak ezin dira, antza, aipatu ere egin. Berdin aterako zaizu bakarren bat esanez mintzeko puntua dela. Ez gara gure herriaz, gure historiaz gogoz, indarrez, ilusioz eta prestijioz mintzatzen. Eta era berean, gero eta kezkatuago agertu izan gara beti, ikasleak geroz eta gutxiago mintzatzen direlako euskaraz. Zurrumbilo hori nire buruan argitzen eman ditut azken urteak.

«Iparraldera bizitzera etortzeak Euskal Herria bere osoan ikusteko aukera eman dit»

"Niretzat zorte izugarria izan da Iparraldera bizitzera etortzea. Askotan galdetu izan diot nire buruari nola ulertuko ote nukeen Euskal Herria Lasarten gelditu izan banintz. Han biziz, hango kulturatik edanez, hango euskalduna izango nintzatekeen. Beharbada, oraingo modari jarraituta, Euskal Herrian bi hizkuntza daudela esango nukeen. Ez nintzatekeen aberrazio izugarri horretaz jabetuko. Hona etortzeak ikuspegi zabalagoa eman dit, Euskal Herria bere osoan ikusteko aukera eman dit. Hegoaldean geldituta oso mugatuta zaude euskaldun bezala. Ikastolen munduan sartzeak ere asko lagundu dit, bistan da. Hori gabe, deserrotuago sentituko nintzen. Hona heldu ginen garaian, Iparraldea eta Hegoaldea bereizten dituen bi erderak edo bi erdal kulturak direla esaten zen, alegia, frantsesa eta gaztelania. Batzuek desberdintasuna ikusten zuten tokian loturak ikusten enpeinatu ginen gu, eta garai hartako ARGIA dut eredu: batzen gaituena, euskara da.

Bestalde, beti pentsatu izan da haurrek, ikastolara eramanda, salbatu egingo zutela euskara. Hori gezur handia da, hemen eta Euskal Herri osoan. Ikasleek ez dute nagusia kopiatu besterik egiten. Euskara salbatu behar bada, nagusiei egotzi behar zaie ardura hori, euskaldundu egin behar dira. Euskal Herriko eskola izateko bokazioa duen eskola orok integratzailea izan behar du. Alegia, haur eta gurasoen integratzaile.

Zer izan da zailena?

Irakaskuntza ez da 'zer', baizik eta 'nola'. Hurrei edozer irakats dakieke nola hori zaintzen bada. Eta nire ustez, ezagutzaren kooperatiba da 'nola' edo gakoa.

Ikasleek ondotoxoa dakite gelan nork egiten duen euskaraz hobekien, nor den matematiketan ona, nor den korrikalari azkarrena, marrazki politenak nork egiten dituen... Konparatzea ona da, nahiz

eta urte batzuetan horren kontra aritu garen. Konparaketa ikasketaren oinarria da. Kontua da irakasleak nola gestionatzen duen hori, konparaketa nola egiten den. Hori da kooperazioa. Alegia, irakaslea ez da dakien bakarra, eta hori ulertzen denean eta nork zer dakien detektatzen denean, kooperatiba egitea. Gakoa laguntzea da, konfiantza ematea, beti talde handian ez aritzea. Hona denok etortzen gara ikastera eta irakastera.

Horixe da zailena. Gu zaharrak gara, mahaian jarri eta erakustekoak izan gara gu, baina badira benetako artistak. Oso berandu konturatu nintzen beste era horretan lan egin behar dela, talde txikitari aritu behar dela, eta ez dela horrenbeste galdetu behar, eginaraztea eta mugiaraztea dela kontua... Helburua laguntzea da. Ikaslea pertsona nagusi bezala errespetatzea dago horren oinarrian.

Oxangoiti
Hotel Jauregia

Gamarra kalea, 2
Lekeitio (Bizkaia)
94 465 05 55 / 659 393 928
www.oxangoiti.net





Erretreta hartu zuen eguneko omenaldian, ikaslez inguratuta.

Zenbat denbora galdu dugun, zenbat beldur izan den horren atzean.

Zerk merezi zuen arreta gutxiago, zerk gehiago... Zer aldatuko zenuke irakaskuntzan?

Hizkuntzarekin gozatzea ahan-tzi zaigu bidean. Olerkiak errezitatzea, abestea, ondo pasatzea, txisteak kontatzea, barre egitea... Hori guztia bukatu da, ahozkoa gero eta gutxiago lantzen da, eta egiten denean mugimendu guztiz kalkulatua izaten da.

Gaiei dagokienez, iruditzen zait oker gabiltzala. Denbora gehiago eskaini beharko genioke gure gorputza ezagutzeari eta zaintzeari, pertsonari, harremanei, elkar laguntzeari. Jakina, inguruneaz ikasi beharko genuke, erreziklatzen, natura ezagutzen eta zaintzen, baina eginez. Orain hizkuntzak dira moda, eta komunikazioa: Internet, ordenagailua...

Euskararekiko eta ikastolekiko jarre-rari dagokienez, zer aldatu da berrogei urteotan?

Lehen baguenen proiektu bat, eta hori dela medio, enfrentatuta bizi ginen proiektua genuenak eta gainerakoak. Atzetik heldu direnak epelagoak izan dira. Beldurrez etorri dira eta hasierako zera hori leundu egin da, egoera hori desagertu egin da. Orain ez dakigu zergatik

etortzen diren ikastolara. Esaten zaigunez, talde txikiagoak direlako izan liteke, edo haurrak ongi segituak eta ongi zainduak direlako... Eta euskaragatik ere bai. Beraz, euskara ez da beti ardatz nagusi eta bakarra. Euskara zerbait gehi da. Ingelesa sartuko balitz, gehiago etorriko lirarteke, ingelesa ere gehi delako. Horrela bizi dute. Herri eskola egin behar dugula, herrigintzan ari garela, proiektu bat behar dela sinesten duenik gutxi da. Edo beharbada badute eta ez dute esa-

"Euskal Herriko eskola izateko bokazioa duen eskola orok integratzailea izan behar du. Alegia, haur eta gurasoen integratzaile"

ten, euskaldun agertzea ez delako une honetan oso salgarri.

Gero, hainbeste jende abertzale eta euskaldun etorri da Hegoaldetik Hendaiara, eta harrituta uzten naute, horietariko askok euren haurrak eskola frantsesean sartu dituztelako, ez dituztelako ikastolara ekarri. Horrek zer esan nahi du? Ez dugu geurea baloratzen, bestea da beti inportantea, kasu honetan frantsesa. Han oso euskaldunak behar-

bada, baina begira zer hautu egin duten hona etorrita, haurren plas-tizitatearen izenean. Euskara ez da inportantea, ez duguna baloratuz bizi gara euskaldunak.

Gainera, guretzat helburua ez da euskara bakarrik izan, baizik eta euskaraz ikastea, euskal eskola egitea. Guk euskal eskola gure seme-alabekin egin dugu eta denen artean, elkartasunean. Hori da nire harrotasuna. Orain lekukoa pasatzen dut, baina ez bakarrik euskara-rena, baizik eta Iparraldean euskal eskola eraikitzearena.

Seaskako gurasoei militantzia eska-tzen zaie eta parte aktibo izatea. Hor-tan ere aldatuko ziren gauzak.

Parte hartzea geroz eta eskasagoa dela esaten dute denek, talde guz-tiek, jendea geroz eta gutxiago inpli-katzen dela, baina nik sekula baino talde gehiago ikusten dut. Lehen, Seaskak antolatzen zituen kantaldiak edo jaialdiak ia bakarrak ziren. Gaurko panoraman ez dago Seaska bakarrik, AEK ere hor dago, eta bertsolariak, herriko taldeak... Ez dakit zer esan, Seaskan parte ez har-tzeak ez du esan nahi inon parte hartzen ez denik.

Halere, guraso guztiak animatzen ditut, eta ez lan egitera deitzen dituztenean bakarrik. Ardurak har-tzera animatzen ditut. Ardura bat hartzeak ilusioa dakar, aurre egitea; eman eta ikastea esan nahi du.

Haurren nahiz gurasoen euskara mailaz eta erabileraz, zer eboluzio ikusten duzu?

Geletan haurren artean geroz eta erdaldun gehiago dago. Ikasleak erdaldunak badira, gurasoak ere bai, bat edo beste, zeren eta bietako bat euskalduna ez bada, euskaldunak bestearen hizkuntzan egiten du normalean.

Bestalde, guraso alfabetatuak datoz, lehen ez ziren. Hala ere, nire inpresioa da euskal produktuak ez direla kontsumitzen, helduek ez dituztela kontsumi-

“Euskara ez da inportantea. Ez duguna baloratuz bizi gara euskaldunak”

tzen, eta produktuak diodanean, irratia, telebista, aldizkariak ere barne hartzen ditut. Euskal kantak ere izugarri jeitsi direla iruditzen zait. Irratian bertan ere. Paisaia hori geroz eta erdaldunagoa da. Irakasleok (eta gurasook) ez badugu gure produktuetan, gure gauzetan sinesten, edo ikasleek behintzat horien orbitan irudikatzen ez bagaituzte, zer nahi duzu egitea haurrek?

Oso zaila ikusten dut euskararen geroa. Eskolari esker, euskararen ezagutza gero eta handiagoa da, eta horretan segitu behar dugu, lana hobeto eginez, noski. Baina erabilerarekin ez da horrela gertatzen.

Lehen, baserritarregatik edo, esaten zen euskaldunak kolonizatu espiritua duela. Orain lehen baino askoz kolonizatuago gaude, orain autokolonizatuta gaude. Geure baitan, helduen baitan dago gakoa, guk aldatu behar dugu jarrera. Ez dugu eskubiderik haurrei ezer eskatzeko.

Euskaldunak beti erakutsi behar du besteak adina dela. Eta ez daukagu ezer demonstratu beharrik. Besteak baino gehiago gara: nik bestea ulertzen dut, bestea da ni ulertzen ez nauena. Geuregan dago gakoa. ■



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu:

gaztehitz euskaraz

EUSKARAREN ASTEA

Abenduak 1

Esne Beltza

Non: Unibertsitate pabilioia. Kultur Campus. Ordua: 19:30

Gasteiz kantuz

Non: Jesus Guridi kontserbatorioa. Ordua: 20:00

Patxi Gallego - Pololoak

Komikiak euskaraz. Non: Zuloa. Ordua: 19:00

35 mm, zinea euskaraz: 80 egunean

Non: Florida zinema (5. aretoa). Ordua: 20:00

Abenduak 2

Nora: Mikel Urdangarin eta Traspasos

Kontzertua eta dantza. Non: Jesus Guridi kontserbatorioa. Ordua: 20:30

Igo gora

Disziplina anitzeko ikuskizuna. Non: Gora taberna. Ordua: 20:00.

Skasti. Kontzertua

Non: Parral. Ordua: 21:00

35 mm, zinea euskaraz: Salda badago

Non: Florida zinema (5. aretoa). Ordua: 20:00

Abenduak 3

GAZTEHITZ! KONTZERTUA

OPIUM, HERRIKADA, GARRAXIKA, GOSE, BRONZE, BETAGARRI, DOCTOR DESEO (euskaraz), SU TA GAR, DJ-a

Non: Mendizorrotzeko kiroldegia. Ordua: 17:00 (ate irekiera)

SOK 2"

Non: Kukai dantza taldea. Principal antzokia. Ordua: 20:30

Abenduak 4

Goi mailako sukaldaritza euskaraz

Edorta Lamo (A fuego negro jatetxea) eta Igor Zalakain (Arzak jatetxearen laborategia)

Non: Kikilialda kultur elkarte. Ordua: 12:00

Plazatik plazera

Bertsolariak (Maialen Lujanbio, Andoni Egaña) decimistak eta payadoreak

Non: Jimmy Jazz aretoa. Ordua: 20:30

Etorri eta gozatu gurekin!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Euskara, enbarazu galanta

KARRAJUA blogekoek egin dute arrantzan, beste behin. Barakaldodigital.com blogean HABEko azterketa egin duten batzuen esanak jaso ditu Koldo Llorentek. Kronika txoa, etsigarria, ikasleak motibatzen oso urrun dagoena, eta nabarmen herrena da. Hona azterketa egin duten horietako batzuren esaldiak: “Nazkatuta nago, bi urte darmaizat azterketarako ikasten eta ez dakit gaudituko dudana, hain urduri jarri naiz”. “Gezurra dirudi bizi-tzan ikasi dudana guztia eta gero, nire etorkizuna euskara azterketaren arabera egotea”. Eta errematea:

“Azterketa bikain egin dut. Gaur amesgaiztoarekin bukatuko dut. Euskara hitz egiteari utzi ahal izango diot”. Lana latz egin behar ikasle horien sentipenak eta ikusmoldeak aldatzeko... baita Llorente blogariaren ikuspegia astintzeko ere.

Udaltop: erdaldunengana hurbilketa

2011KO UDABERRIAN izango da III. Udaltop, udaletako euskara zerbitzuen topaketa. Egitaraua prest ez badago ere, galdera nagusia zehaztu dute eta politikari-poliki gero eta gehiago aipatzen den gaia aukeratu

dute: “Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletik?”.

BAHEA

Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak Garan esanak:

“Kontseiluak orain arte atxikimendua eskatu du; horrela bete ziren bost estadio. Baina, atxikitzeak ez du inolako konpromisorik eskatzen. Beraz, urrats bat gehiago behar dugu: konpromisoa. Euskaraz ez dakienak ikasi egin behar du, oztupo delako euskaldunak bizi ahal izateko eta dakienak hitz egin beharko du. Atzean pentsamendu aldaketa dago, jarrera aldaketa”.

Tiraka blogean martinrezola erabiltzaileak esanak: “Nik halaxe irakurri dut, oro har, Patxi Baztarrikaren Babeli gorazarre liburu potoloegia. Hau da, gehiago nabaritu diot fededunaren ikuspegia benetako egoera aztertu nahi duen jakinzailearena baino. Desiragarria, ‘nahiko genukeena’ lehenetsi egiten da, errealitate gordinaren kaltean. Eta zerbait desiragarria izateak –‘erakargarri egin behar dugu euskara’, ‘adostasuna beharrezkoa da’...– ez du zertan, berez, inolako aurrerakuntzarik ekarri; areago, kalterako ere izan liteke, egoeraren larriari aurre egiteko indarrak ahuldu baitituzake, atsegintasunezko autoengai-nuaren bidez”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Bazterketa sozialak hil egiten du

Bi pertsona hilda eta beste bi larri zaurituta, hori izan da joan den astean Santurtzin abandonatutako jatetxe batean izandako sutearen balantzea. Biktimak, gazteak eta immigranteak dira. Beste bi lagunek ere bizia galdu zuten duela hilabete batzuk Barakaldon, antzeko gertaeratan. Kutxazaintan eta kalean igarotzen zuten gaua. Joan den urriaren 31n, beste pertsona bat hil zen Gasteizeko Adurza auzoko parking batean lotan ari zela. Abuztuan bi haur zauritu ziren Bilboko Kastrexanan egoera kaskarrean zegoen eraikinak su hartu eta gero. Joan den urtean emakume bat hil zen Baionako alde zaharreko etxe batean izandako sutean; hau ere baldintza txarretan zegoen. 2006an lau lagunek bizia galdu zuten Bilboko San Frantzisko auzoan, aterperik gabekoentzat lan egiten duen elkarte baten “pentsio” zaharrean izandako sutean. Gizarte-bazterketa kasu antzeko gehiago gertatzen dira, Euskal Herrian ez ezik, mundu osoan ere.

Beraz, Santurtzikongo tragedia ez da isolatutako gertaera. Hiltzen duen bazterketa sozialaren adierazle da. Eta hiltzen du, kapitalismoa –“merkatu” ospetsua– sistema basati, terrorista eta hiltzailea delako. Galerak sozializatu eta zergadunen kontura etekinak pribatizatzen dituen sistema da hori. Miseria, desberdintasuna eta gizarte-bazterketa sortzen duen sistema. Etxebizitzak okupatu, kalean edo txabolatan nekez bizi, edota emigratzera behartzen duen sistema. Gure zergen kontura bankuak eta finantza erakundeak “erreskatatzeko” mekanismoak dituen sistema. Horretarako, sistemak eskubideak eta prestazio sozialak murrizten ditu, eta ez da gai kalean bizi direnentzat aterpe duin batzuk eskaintzeko. Dirua dago AHTa bezalako azpiegitura handiak egiteko, baina ez aterpeak eraikitzeko. Pertsonak bazterketa sozialetik erreskatatzeko gai ez den sistema da hau. Horregatik, bazterketa sozialak hil egiten du.

Juan Mari Arregi

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egundean
edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

O Katalunia!

EZKER ABERTZALEAK beste urrats esanguratsu bat eman du alderdi politiko berriaren oinarriak zehazterakoan. Altsa-suko Adierazpenaren ondotik finkatutako agerpen indartsu eta zainduarekin taularatu da, mezu tinkoarekin: argi gera bedi prozesua era batuan egiten ari dela eta ez duela atzera bueltarik. Ez da espero bakorik izan Iruñeko aurkezpenean, eta esango nuke galdera ikur bakarra gelditu dela airean: erakunde berriaren estatutuek zein terminologiarekin beteko dute Alderdien Legera egokitzeko iragarpena?

Fase politiko berriari begira, helburu politikoak lortzeko biolentziaren arbuiz oso garbia egiten da. Michell printzipioei jarraiki, biolentzia mehatxu gisa erabiltzearena ere sendo ukatzen da eta honek ETak bake prozesuaz egin dezakeen zaindari lana erotik deusezten du. Hemendik gutxira, beraz, erakunde berriaren estatutuak ezagutuko dira eta hortik aurrera egin beharreko urrats nagusiak ez dira jada ezker abertzalearen esku izango, nahiz eta oraindik terminologian maniobra tarte zabala geratzen zaion. Orain inoiz baino gehiago, begirada guztiak ETari zuzenduko zaizkio, honek Bruselako Adierazpenari –eta Gernikako Itunari–



JON URBE/ ARGAZKI PRESS

emango dion erantzunaren zain. Ezker abertzalearen asmo berriak erabat daude lotuta erakunde armatuak iragarriko duenarekin.

GIPUZKOAKO DIPUTAZIOAK lurralde honi buruzko hauteskundeetako inkesta argitaratu ondoren, datu bat oso deigarria da: Gernikako Ituna izenpetu dutenek ordezkartzaren ia %34 lortuko lukete. Dena da oso airean, jakina, nagusiki oraindik ez dakigulako ezker abertzalea izango den edo ez, baina itxura guztien arabera lehia oso sendoa izango da Gipuzkoan. Jasango dugun inkesta zaparradaren baitan hau lehenetako besterik ez da, baina joera nagusien berri eman dezake. Ezker abertzaleak parte hartzeko aukera badu bederen, aliantza berriak gau-

zatuko direla dio geziaren norabideak: Gernikako Itunekoek norabide berean doazela erakutsiko ote dute? *Batu gaitez* bai, baina norekin, azpiegitura erraldoien defentsan PSEekin ala ezkerreko abertzaleekin? Edo PSE-PP aliantzak eutsiko dio oraindik? Benetan hauteskunde demokratikoak badira, panorama interesgarria dator, Gipuzkoan zein Hego Euskal Herri osoan.

KATALUNIAKO emaitzetatik atera al daiteke ondoriorik Euskal Herriari begira? *Deia* egunkariaren asteleheneko titulua ikusita, iraganera –albiste zen neurrian– eta etorkizunera begira ari zen nabarmen: “CiU barre a los socialistas” (“CiUk aurrez aurre eraman ditu sozialistak”). “Sozialistak” beharrean, erabil zezakeen PSC, kazetaritzaren ikuspegitik askoz zehatzagoa. Baina tituluari ukitu profetikoa eman eta lerro artean “EAJ barre a los socialistas” irakurtzeko aukera ere eskaini zuten. Bai, ezagun da hura beste lurralde bat dela, baina urduritasuna libre da, eta PSEk badu urduri izateko arrazoirik. PPK, aldiz, irribartsu agertzekoa. Eta euskal independentismoak ere argi ikusi du, beste behin ere, banaketaren emaitza zein den.



● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure!
artean
euskaraz



BIZKAIA
BIZIA

Irlanda zaharra euroaren kolonia bihurtu zenekoa

Joan den asteko Net Hurbilek zioen merezi zuela Morgan Kelly ekonomialariaren azterketa hurbilagotik ezagutzea. Irlandarren gainean ekaitzaldi bortitza hasi bezperatan, azaroaren 8an, *Irish Times*-en Kellyk honakoa publikatu zuen: “Uste baduzue erreskatea gogorra dela, itxaron ikusi arte hipoteken hondoratzea”.

IF YOU THOUGHT THE BANK BAILOUT was bad, wait until the mortgage defaults hit home” darama lerroburtzat Morgan Kellyren analisiak. Bi orriotan laburbiltzen saiatu gara.

Irailean Irlandako errepublika hil egin zen subjektu fiskal gisa eta Europako Banku Zentralaren preso bihurtu. Estatu irlandarraren zorra Ukraina eta Pakistangoen mailara jaitsita, Argentina, Grezia eta Venezuelaren zor-zaborretatik ahurra betera, atzerabiderik gabeko puntura heldu zen.

Irailean amaitzen zitzaizen epea banku irlandarrek beste banku aleman, ingeles eta frantsesei hartutako 55.000 milioi eurotako bonoei. Irlandak orduan legez bazeukan etetea bankuei emandako bermea, argudiatuz informazioa ezkutatu ziotela, eta gaiok daramatzan auzitegiak erabakiko zuen kiebran zeudela. Baina Dublingo gobernuak erabaki zuen 55.000 milioiok pagatzea.

Erabaki horrekin irabazle atera dira Alemania eta Frantziako bankuak, dirua berreskuratu dutelako; Irlandako politikari nagusiak, Europak zoriondu dituelako kirol legez jokatzegatik; eta banku irlandar errudunetako buruzagiak, gehienek segitzen baitute beren enplegu ondo sariztatuetan. Arazo bakarra da Irlandak ez duela zergetan biltzen dirutza guzti hori.

Gobernuak hasieran esan zuen herritarrek 30.000 milioi inguru ordaindu beharko zutela Anglo Irish bankua salbatzeko operazioa. Antzeko kalkulua eginez, AIB eta Bank of Ireland salbatzeko beste 30.000 milioi bederen beharko dira. Bata dela bestea dela, azkenean 70.000 milioi irentsiko dituzte bankuek... baina ordainetan Dublingo gobernuak aurrekontuetatik moztutakoein ezin dira gainditu 15.000 milioiak.

Zor publikoaren bonoak hondoratu dituen bankuen kiebra da, ez defizit publikoa. Bankuena gabe nazioaren zorra lau urtetan hurbildu zitekeen Frantzia batek daukanera. Baina ez da gertatuko. Herritarrek jakin behar dute datozen hiru urteetako errenten gaineko zergak osorik Anglaren zuloa betetzera botako dituela estatuak, hurrengo bi urteetakoak AIBren zuloa, hurrengo urte eta erdiko guztiak gainerako bankuen zuloetara. Sei urte eta erdian errenten gaineko zergak osorik. Kaudimengabea da Irlanda.

Kaudimengabe izatea enpresa batentzako da hilik egotea. Kiebra da hileta. Zerk atzeratu du Irlandako estatuen kiebra?

Batetik, gobernuak diru bat pilatu duela tartean, urte berrian likideziaz arazorik ez edukitzeko. Bestetik, Europako Banku Zentralak dirua

Al Jazeera telebistaren webgunean paratutako argazki honetan Dublingo aitafamiliako bat ageri da gobernuaren kontra protestan. Afixean lehen ministro Brian Coweni aurpegiatzen dio: “Cowen, gure semeak 12 urte dauzka. Zorretan sartu dituzu bera eta oraindik sortu ez diren haren umeak”. Ondoko lerroetan laburbildutako artikuluan Morgan Kelly ekonomialari irlandarrak –inork baino lehen abisatu zuenak artean Tigre Zelta zen haren gainera zetorren ekaitzaren bortitza– aitortu du berak ez daukala altematibarik: “Ekonomialarien artikulua mordo iraunkorra egongo zarenez badakizue behin honetara iritsita aginduko zaidala 30 hitz edo gutxiagotan gure arazoak konpontzeko soluzio bat marraztea. Tamalez besoak jaso eta esan behar dizuet ez daukadala konponbiderik, ez errezik, ez bestelakorik”. Irlanda kasik oharkabean sartu da independentziaz geroztik egokitu zaion larrialdirik estuenean.

aurreratu diela banku irlandarrei, Greziarekin udaberrian gertatutako buruhausterik jazo ez zedin. Dirua aurreratu... zer egin erabaki artean. Irailetik funtzionario europar talde bat dago sartuta Finantza ministerioan, “The Germans” izenez ezagunak. Etxegintzako promotoreek beren kredituekin hondoratuko dituzte bankuak, eta kaudimen publikoari esker bankuek Irlandako estatua hondoratu dute, Europako Banku Zentralaren gatibu bihurtuz.

Orain hasiko da tragedia

Antzerki honen hurrengo atalak gai berdintsuak jorratuko ditu, kreditu txarrak eta kanpo zorra, baina aurretantzean fartsa ez baina tragedia izango da. Hipotekek osatuko dituzte kreditu txarrak eta kanpoko hartzekodun ezin ordainduzkoa Europako Banku Zentrala izanen da.

Traumatikoagoa izango da aurretantzean. Hipoteketan kontatzen badira atzeratu nahian ari direnak eta porrota jotakoak, 100.000 baino gehiago familiaren kredituak “urpean” daude. Baina gauzak asko okertuko dira laster. Familien kredituak nola edo hala kobratzea bermatzen zuten bi hesi erori baitira.

Familiek senperrenak egiten dituzte hipoteka pagatzen segitzearen, bestelako gastuak murriztu, gurasoei eskatu... etxea galtzeagatik



ordaintzeko moduak publikoki argitzea beste biderik ez dute izanen: zenbat pagatu behar den eta zein baldintzaren pean.

Interes tasak pagatzeko modukoak izango ote dira? Europako Banku Zentralak ezartzen badio Greziari ezarri %5a, Irlandak ezingo dio aurre egin eta kiebra aitortu beharko du. Tasa txikiagoa jartzeko arrazoirik ez da ikusten, Irlanda txikiegia da axola izateko, eta, alderantziz, balio lezake Italia eta Espainia garaiz arrastoan sarrarazteko eskarmentu gisan.

Fiana Fail alderdiko agintariak hilabeteotan zabaldu dute Europak Grezia bezala salbatuko duen segurtasuna. Greziak ordainduko duenik ez omen du uste, zergatik orduan Irlandak? Baina greziarrek ez bezala irlandarrok gure zikinkeriak ezkutatu eta auzoko guztiak nardarazi ditugu urteotan gure sistemarekin eta harrokeriarekin. Gobernuak politikariek orain nahiko lukete europarrak beren zergekin pagatzea "Europako Naziorik Aberatsenaren" zorrak.... haiek beren xahutzeekin segitzeko.

Jende arrunta ohartzen denean gauzak ez bakarrik gertatzen direla baizik eta haiei gertatzen zaizkiela, estuasunetik haserrera eta etsipenera pasako da; Irlandako politika AEBe-tako Tea Partyren lerroan sartu deza-ke bost urte baino lehen.

"Estatu burujabeek egin ditzakete aukera politikoak, baina gu jadanik ez gara burujabe hitzaren inolako zentzutan. Hemendik aurrera, onerako bezala txarrerako, arrotzen eskuzabaltasunean datza gure itxaropen bakarra". *Morgan Kelly dixit.* ■

denen aurrean lotsakizun ez gelditzearren. Hau aldatzera doa. Hautatua baldin bada edo bankuari pagatu edo familia goseak eduki, lehentasuna bigarren honek dauka. Ameriketako gero eta *strategic default* gehiago ikusten da: bankuak auzitara jo eta gauzak erabaki bitartean, urte batzutan bizitzen ahal zara pagatu gabe, ondoren alogera bila hasteko.

Familia batek brok egiten badu hipotekan, paria gisa geratzen da; 200.000 familia baldin badira, arazo politiko bihurtzen dira. Tigre Zeltaren ipuinarekin zu ere engainatu zintuztela aitortzea ez da lotsatzekoa.

Antzinako Lurraren Gerra haietako bat ikusi behar dugu laster, baina orain ez lurrik gabeen eta ugazaba aberatsen artekoa; oraingoan borro-

kan ariko dira batetik lanean gogor sakrifikatuta etxe baten jabe egin diren familien gehiengoak, gehi prezioak aparra bezala igo zirenean ez erostea erabaki zutenak, eta bestetik hipotekak barkatu behar zaizkiela uste dutenak.

Hipotekak salbatzen zituen beste hesi eroria etxeen prezioena da. Kredituen interesetan dago gakoa, bankuek garesti pagatu behar diete atzeritarrei eta karuago kobratu behar etxekoei. Zordunen hipotekak ere ugaritu egingo dituzte bankuek, ahal duten prezioetan. Etxebizitzek behe- ra egingo dute latz.

Urte berriarekin Irlanda krisi orokorraren hurrengo urratsean sartuko da. Estatua dirurik gabe geratutakoa, alde guztiek porrota aitortu eta





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Garline Ubeda Goikoetxea

Silvio Berlusconi

I zena aipatze hutsak salmonelosia-
ren efektua du niregan. Barrenak
pozoitzen dizkit. Goitik eta behe-
tik eginarazten dit. Propulsi-
oz ateratzen zaizkit hondakinak.

Birus inbasiboetarako tolerantzia eskase-
koa ni.

Bere balentria guztien artetik ez dakit
zein den gehien nardatzen naue-
na, zein ahoberokeriari emango
ote niokeen okaztagarriena iza-
tearen meritua, hain baitu mar-
dula zerrenda. Hainbestekoa
baita bere profila.

Hasteko eta behin, aipamen
berezia egingo diogu abokatu
gisa duen etorriari; bere afera
sexualak —eta pederastia— justifi-
katzeko baliatu izan duen defen-
tsari: “Hobe neska ederrei begi-
ratzea homosexual izatea
baino”.

Auzitegi Konstituzionalak
inmunitatea indargabetu zion
egunean, bere zintzotasuna fro-
gatzeko eta bidenabar epaileen
politizazioa salatzeak erakutsi zuen arra-
zonamendu estoikoari: “Oposizioak des-
kribatzen duenari jarraitzen bazaio,
gubernuburua munstroa da. Baina ezin
du horrela izan, ez bakarrik apaina naize-
lako, baizik eta gainera ezin jatorragoa
naizelako”.

Bere sokakoak ez direnentzat gorde-
tzen duen politeziari: “Ezkerrak ez du
gusturik. Gure emakumezko hautagaiak
askoz ere ederragoak dira, parlamentuan
erreparatu besterik ez dago. Ez dago kon-
paratzerik”.

Jakina, kanpo inbertsioa erakartzeko
asmatu duen publizitateak ere merezi ditu
puxtarri lodikote batzuk: “Italian inberti-
tzeko pisuzko beste arrazoi bat emango
dut: hemen idazkari izugarri ederrak ditu-
gu... neska benetan liluragarriak”.

Eta, noski, lan prekarietateari aurre
egiteko bururatzen zaizkion irtenbideek,
batik bat emakumezkoek pairatzen dute-
nari begira jarrita: “Aita naizen aldetik
—neska gazte bati esana—, Berlusconi-
ren semearekin ezkontzea aholkatzen dizut,



DANI BLANCO

« Giorgio Gaber kantautorearen

hitzak nireira ekarrita, ez da

Berlusconi beldurtzen nauena.

Berez, nire baitan eta

ororen baitan dagoen

Berlusconi izutzen nau

edo, behinik behin, antzeko arazorik ez
duen besteren batekin”.

Nabarmentzekoa, halaber, historiako
gertaera esanguratsuak berrinterpretatze-
ko darabilen optika eta umore kutsakorra:
“Mussolinik ez zuen inor hil, aurkari guz-
tiak oporretan erbestera igorri zituen”.

Edota nagusikeria zer den ondotxo
dakiten agintarientzat, aipa deza-
gun beldurrik gabe Sarkozy, sortu
duen eskola: “Errumaniarrak Ita-
lian sartu eta nahi dutena lapur-
tzen eta atrakatzen dute”.

Izan ere, bertako ezkertiarrek
eta nazioarteko prentsa, konplot
paranoikoan beti, kontrakoa fro-
gatzeko ahalegintzen diren arren,
dibinoa dugu Berlusconi, “Jainko-
ak bere graziaz ukitua”, parerik
gabekoa: “Ez dago lider politiko-
rik, European nahiz mundu osoan,
orkatiletara heltzen zaidanik”.
Politikan bezala, baita negozioei
dagokienez ere: “...edo izatez
gerotan, Bill Gates”.

Uler nezake sentimendu anti-
politikoa hain errotua duen herriak politi-
karen esperpentoa inork baino hobeto
gorpuzten duenari sinpatia izatea. Uler
nezake ustelkeria eta saldukeria fisiologia-
ren partetzat daukanak itsu-mutu-gor egi-
tea azaleratu diren eskandalu eta proze-
suetan, edo horietariko askotan. Uler
nezake komunismoaren mamuari beldu-
rra dionak “hura uxatu dezakeen bakarra-
ri” konfidantza egitea. Uler nezake siste-
ma faliko hau aldatzearekin bat ez
datorren matxistak disimulua alde batera
uzten duen aiton lizun lotsagabea mito
bilakatzeraino gurtzea. Baina autoestima
soufle perfektuak baino haizatuago duen
honek intsultatu eta gutxietsi dituenak
(homosexualak, italiar pedigree garbia ez
dutenak eta bereziki emakumeak) orain-
dik ere bere partiduan, bere alde, bere
eskupekoekin gustura ikustea, hori ez dut
sekula ulertuko.

Giorgio Gaber kantautorearen hitzak
nirera ekarrita, ez da Berlusconi beldurtzen
nauena. Berez, nire baitan eta ororen bai-
tan dagoen Berlusconi izutzen nau. ■

EHUN URTE IRUDITAN

Euskal gizartearen memoria grafikoan barrena bidaia aparta

Bigarren liburua

abenduaren
3an

zure kioskoan



1900etik 1930era. Kontraste eta aldaketa garaia da, tentsiopeko urteak, gatazka sozialak eta errepresio bortitzak inguratutakoak. Marokoko gerrak, Primo de Riveraren diktadurak eta Lehen Mundu Gerrak Euskal Herria astintzen dute. Hainbat lanbidetako azken eskulangileak desagertzen zihoazen eta lan teknika berriak agertzen hasi ziren; kulturaren esparruan, berri, euskararen inguruko kezka zabaldu zen jendartean.

GARArekin + 11,95 € soilik



Lehenengo liburua
lortzerik izan ez bazenuen,
<http://denda.gara.net> helbidean
edota, astelehenetik ostiralera,
9:00etatik 15:00etara,
943 316 999 telefonora
deituz eskura dezakezu.

Hurrengo emanaldiak:
**urtarrilaren 2an eta
otsailaren 4an**



Odi-Bakarren arrakasta ikusita Sukiak Errotaritxuena berria aurkezten du

*Zu ere bizi
zaitezke hemen*

**Eman ezazu
izena**



Aurki etxebizitza eta garajeen eraikuntza

946 46 20 41 www.sukia.com
www.solvía.es

 **sukia**
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

